



AKTA

Espediente-zk:	Kide anitzeko organoa:
OSOKO BILKURA/2024/9	Udalbatza

BILKURAREN DATUAK	
Deialdi-mota	Ohikoa
Eguna	2024ko uztailaren 22a
Iraupena	09:00etatik 09:45era
Tokia	Osoko bilkuren aretoa
Udalburua	Javier Gorbeña García
Idazkaria	Mariló Suárez Rodríguez

BILKURARA BERTARATU DIRENAK		
NAN zk.	Izen-abizenak	Bilkura n izan da
18593219L	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ	BAI
16032037W	CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA	BAI
18598103G	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN	BAI
16287057K	EDUARDO LORZA GARCÍA	BAI
72748486S	IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LÓPEZ DE IPIÑA	BAI
30641952H	JAVIER GORBEÑA GARCÍA	BAI
72841412K	MAITE COBO BARCALA	BAI
72831885Q	MIKEL ISASMENDI TXURRUKA	EZ
72841383S	XABIER NAFARRATE CADIÑANOS	BAI

Udalburuak bilkurari hasiera eman dio, idazkariak egiaztatu ondoren organoa balioz eratu dela, eta eguneko aztergaiak aztertzeari ekin zaio.





A) EBAZPEN-ZATIA

Onestea aurreko bilkurako akta, 2024ko ekainaren 28koa

Alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrik egin nahi dion 2024ko ekainaren 28ko bilkurako aktari. Akta hori deialdiarekin batera banatu zen.

Ez da oharrik egin eta akta onetsi da Toki Erakundeen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoaren bat etorritz.

142/2024 espedientea. 2025 urteko baso-espedientea onesteko irizpena

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa / aho batez

Alkate jaunak udalbatzak onesteko aurkeztu du 2025eko baso-espedientea, 2024ko uztailaren 15ean Informazio Batzarrak aldeko irizpena eman ondoren.

Ikusi da Udal Titulartasuneko Mendietako Lursailen Aprobetxamendua Arautzen duen Ordenantzaren 1.3 artikulua honako hau adierazten duela hitzez hitz: *"3. Arabako Foru Aldundiaren mendien arloan eskumena duen sailak urtero baimendu beharko ditu mendi katalogatuen gaineko aprobetxamenduak; horretarako, Zigoitiko Udalak urtearen hasierako lehen sei hilabeteetan espediente bat egingo du, egin nahi diren aprobetxamendu guztiak biltzeko."*

Administrazio Batzarrek eta Zigoitiko udalerriko biztanleek aurkeztutako eskariak aztertu dira 376 OPMa aprobetxatzeko, hau da, egurketak, larreak, luberriak eta erlezaintzako aprobetxamendurako, udalerrri honen 2025eko baso-espedientean sartzeko.

Udalbatza osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Onestea Zigoitiko udalerriko 2025eko baso-espedientea, akordio honen I. Eranskinean dauden aprobetxamenduetarako eskariekin bat etorrita.

BIGARRENA.- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko mendien zerbitzura espediente osoa bidaltzea, onespena eskatzeko.

I. ERANSKINA

Udal mugarte honetako mendietan egin nahi diren aprobetxamenduen zerrenda.

A.- LARREEN APROBETXAMENDUA

Zigoitiko Udalak 2024ko maiatzaren 21eko 2024-0242 Alkatetzaren Ebazpen bidez, onartu zuen larreen aprobetxamendua 1.192 ardi aziendarentzat, 97 behi aziendarentzat eta 188 zaldi aziendarentzat.

B.- EGUR-SORTAK

B.1. ADMINISTRAZIO BATZARRAK ETA KOMUNITATEAK

Honako administrazio-batzorde eta komunitate hauek eskatu dituzte denboran eta forman beren jabetzako mendietako egur-sortak:

1. APODAKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA
2. GOPEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA
3. LETONAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA
4. MANURGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA





5. MURUAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA
6. ZESTAFEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA
7. PADUAKO SAN ANTONIOKO KOMUNITATEA

B.2.- ZIGOITIKO UDALA

Zigoitiko Udalak 2024ko uztailaren 3ko 2024-0333 Alkatetzaren Ebazpen bidez onartu zuen udalerriko 109 egur-sorten eskariak.

C.- EHIZA BARRUTIA

Zigoitia izeneko VI-10.180 ehiza-barrutian ehiza-aprobetxamendua dago; barruti hori 373 eta 376 OPMk osatzen dute eta Ondategiko administrazio-batzordearen eta Zigoitiko Udalaren jabetzakoak dira, hurrenez hurren; era berean, Etxaguen, Manurga, Murua eta Ondategiko administrazio-batzordeen jabetzako sailak ere baditu eta jurisdikzio horietako jabetza partikularreko landa-finkak ere bai.

Adjudikazio-akordioa: 2024-0137 Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko martxoaren 19koa.

Adjudikazioduna: LARRINOA KIROL ELKARTEA.

Kontratua formalizatzeko data: 2024ko ekainak 6.

Kontratuaren indarraldia: 2034ko martxoaren 15era arte.

D.- EZTI-APROBETXAMENDUEN ESKARIAK

Arabako Foru Aldundiko abeltzaintza zerbitzuko Abeltzaintza eta Nekazaritzako Ustiatgien Erregistroan (REGA) izena emandako erlezaintzako kokapenen zerrenda, Zigoitiako 376 zenbakiko onura publikoko mendian daudenak.


(...)





IMAGEN MUP GORBEIA 376 GORBEA

COLMENARES PUNTOS AMARILLOS, MUP AREA VERDE



Erlezaintzako aprobetxamendua onesteko zain daude eskari hauek:

- O. D. D. E., J. M. (231K partzela, 4. poligonoa) – 9 erlauntz.
- G. L. D. I., I (1121J partzela, 3. poligonoa) – 35 erlauntz.

E.- IRAUNGITAKO LUBERRIAK: AURREKO BASO ESPEDIENTEAN BERRITZEKO ESKATU ETA ONARTU EZ DIRENAK

UDALA	AFA	ADJUDIKAZIODUNA	LUBERRIA REN AZALERA	OKUPATU TAKO AZALERA
53	1		1,74	
17	2		1,12	3
19	2		3,89	2,81
18	3		0,89	
12	4		0,32	





UDALA	AFA	ADJUDIKAZIODUNA	LUBERRIA REN AZALERA	OKUPATU TAKO AZALERA
13	4		1,24	0,2
14	5		3,50	
15	5		2,05	0,16
16	5		1,86	0,2
20	5		3,74	
21	5		1,81	
22	5		2,37	
23	5		1,61	
24	5		0,50	
25	5			0,75
26	5		0,24	
27	5		2,96	
28	5		2,31	
29	6		0,64	
30	6		0,68	0,8
31	6		1,33	
32	6		1,59	0,4
33	6		1,77	
34	6		1,70	
35	6		2,22	
36	6		2,67	
37	6		14,12	
38	6		1,24	
39	6		1,19	
40	6		2,89	
41	8		3,07	0,5
42	8		1,04	
43	8			2,23
44	8		1,12	
45	8		1,74	0,21
46	8		2,51	
47	8		2,97	
48	8		2,51	
49	8		1,77	
51	8		5,04	
50	9		3,07	
6	11		0,83	





UDALA	AFA	ADJUDIKAZIODUNA	LUBERRIA REN AZALERA	OKUPATU TAKO AZALERA
7	11		3,10	
10	11		3,86	
8	12		3,63	
9	12		1,26	
11	12		1,17	
1	35		1,73	0,27
2	35		1,73	0,27
3	35		1,69	0,31
4	35		1,37	0,63
5A	35		0,83	1,20
5B	35		0,66	1,20

AMAIERAKO OHARRA: Ganadua larreak aprobetxatzeko sartuko den data baso-aprobetxamendurako udal ordenantzan ezarritakoa izango da; aurrez adierazitako mendietan edozein puntutan sartu daiteke ganadua larrera, erretzeko edo birlandatzeko eremu gisa aitortuta ez daudenetan salbu.

248/2024 espedientea. ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAren hitzarmena onesteko irizpena, musika irakasteko

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa / aho batez

Alkate jaunak udalbatzak onesteko aurkeztu du ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAren aldeko dirulaguntza izenduna arautzeko hitzarmena, Zigoitin musika emateko, 2024ko uztailaren 15eko Informazio Batzarrak aldeko irizpena eman baitzuen.

Aztertu da ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEArentzako dirulaguntza izendunaren hitzarmen arautzailea, 2024ko azaroaren 7tik 2028ko azaroaren 6ra musika emateko, Udal honek eta aipatutako elkarteak sinatu beharrekoa.

Ikusi da hitzarmen hori sinatzea justifikatzeko memoria, 2024ko maiatzaren 8an administrazio orokorreko teknikariak egindakoa.

Udalbatza osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Onestea ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEArentzako dirulaguntza izendunaren hitzarmen arautzailea 2024ko azaroaren 7tik 2028ko azaroaren 6ra musika emateko; testua akordio honi erantsi zai.

BIGARRENA.- Alkateari ahalordea ematea hitzarmen hori formalizatzeko.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri ematea ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAri, dagozkion ondoretarako eta aipatutako hitzarmen arautzailea formalizatzeko.

ERANSKINA

ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAren ALDEKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEKO HITZARMENA, ZIGOITIKO UDALERRIAN





MUSIKA IRAKASTEKO

BILDUTA

Batetik, JOSUNE MARTIN IZAOLA andrea, ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAREN (IFZ: G01445154) presidentea eta haren izenean eta ordezkatzuz

Eta bestetik, JAVIER GORBEÑA GARCÍA jauna, ZIGOITIKO Udaleko alkate-udalburua, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikulua araberaren duen ordezkariaren arabera eta hitzarmen hau sinatzeko ahalarekin, 2024ko uztailaren 22ko udalbatzaren akordio bidez.

Bi aldeek elkarri aitortu diote ekintza honetarako beharrezko lege-gaitasun nahikoa, honako aurrekari hauek kontuan izanda:

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2011ko apirilaren 6an sinatu zen Zigoitiko Udalaren eta ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAREN arteko lankidetzaren hitzarmena, musika-trebakuntza eta kultura musikarekin zerikusia duten beste jarduerak batzuk eskaintzeko Zigoitiko udalerrian, indarraldi zehatzik gabe.

BIGARRENA.- 2016ko irailean, musika-eskola ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAK kudeatzen zuenez, proiektua behar bezain sendoa zenez eta gero eta ikasle gehiago zuenez, Oketa Alai Dantza Taldeak elkartearen eratu eta ibilbidea bakarrik egiten hastea erabaki zuen. Ondorioz, 2011n sinatutako lankidetzaren hitzarmena aldatu egin behar izan zen.

HIRUGARRENA.- 2016ko azaroaren 7an beste hitzarmen bat sinatu zen ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAREKIN, Zigoitian musika prestakuntzako programa eta kultura musikarekin finantzatzeko; hasiera batean 4 urteko indarraldia izango zuen eta beste 4 urtez luzatzeko aukera zegoen.

LAUGARRENA.- 2024ko azaroaren 6an amaitzen da hitzarmen horren indarraldia eta ezingo da luzatu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.1 artikulua honako hau ezartzen du: *“Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidagoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduerak-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.”* Eta aipatutako lege horretako 25.2 artikulua ere honakoa xedatzen du: *“Udalerriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidagoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak betetzeko ditu: m) kultura eta kiroltako jarduerak zein instalazioak;”*.

BIGARRENA.- Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.20) artikulua ezartzen du udalerrien eskumen propioa izango dela:

“20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.”

HIRUGARRENA.- Zigoitiko Udalak bere eskumenen baitan udalerriko biztanleriaren musika prestakuntza sustatzeko xedea du, oinarriko musika-ikasketak emango dira eta kultura musikarekin lotutako jarduerak ere egingo dira.





LAUGARRENA.- Asociación Musical Dominizubi Musika Elkartek bere estatutuetan honako xede hauek aipatzen ditu, besteak beste:

-Zigoitian musika-irakaskuntza, -prestakuntza, -praktika eta -hedapena bultzatzea edozein adierazpenen bidez dela erritmikoak, entzutekoak, ahozkoak edo instrumentalak.

-Musika-jardueretarako sarbidea eta horietan partaidetza aktiboa izatea sustatzea eta heziketa musikala indartzea lehiarik eta alderaketarik gabeko giroan.

-Gure eskola eta instituzioen ahalegin hezitzaileari laguntzea eta musika-heziketa ahalbidetzea gaitasunen araberako diskriminaziorik gabe, arreta berezia eskainita inguruabarren ondorioz garatu ezin izan dituztenei, hala nola gure adinekoei.

BOSGARRENA.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikulua honela definitzen ditu hitzarmenak: "Ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek (...) zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera. (...) Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak."

SEIGARRENA.- 40/2015 Legearen 48.3 artikulua honako xedatzen du: "Hitzarmenak sinatuz (...) erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezten lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete". "Hitzarmenak diru-laguntza bat bideratzen badu, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala badagokio, aplikatu beharreko autonomia-erkidegoko garapen-araudian aurreikusita dagoena bete beharko du."

ZAZIPGARRENA.- Amaitzeko, 40/2015 Legearen 50.1 artikulua honako hau ezartzen du: "hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea."

Nahi den ekintza gauzatzeko aldera, aipatutako aldeek honako klausula hauek onartu dituzte:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honek **ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEA**ren aldeko dirulaguntza izendunaren baldintzak arautzea du xede, Zigoitiko udalerrian musika irakasteko eta kultura musikala hedatzeko.

BIGARRENA.- Hitzarmen hau gauzatzeko, aldeek hitza ematen dute honako betebeharrak beteko dituztela:

• ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAK:

1. **Ikasturte bakoitzerako musika-trebakuntzako programa diseinatu eta Zigoitiko Udalean aurkeztuko du urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehenago, eta dagokionean, ikasturtea hasi baino lehenago.** Era berean, trebakuntzako programarekin batera **programa gauzatzearen ondoriozko gastuen hasierako aurreikuspen bat aurkeztu beharko da, baita sarrera guztiak** (kuotak, matrikulak, etab.) eta beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako **beste finantzazio-iturriak** ere bai.
2. Zigoitiko Udalari **jakinarazi beharko dio hasieran aurkeztutako musika-trebakuntzako programaren diseinuan** egin nahi duen **aldaketa oro, aldaketa egin aurretik adosteko.**
3. Zigoitiko Udalak musika-trebakuntzako programarako utzitako **udal titulartasuneko instalazioak, ekipoak eta altzariak zuzen erabili beharko ditu**, eta Udalari jakinarazi beharko dio horietako egondako gorabehera, matxura edo kalte oro.





4. Zigoitiko Udalari **jakinarazi behar dizkio musika-tresnak edo bestelako materialak erosi beharra dagoela, ezinbestekoak badira** musikako ikastaroak emateko. Horretarako material horien gastuaren proposamen ekonomikoa aurkeztuko da, erosi aurretik onesteko.
5. **Berariak adieraziko du Zigoitiko Udalaren babesa** euskarri grafiko, idatzi edo entzuteko euskarri guztietan, musika-trebakuntzako programagatik egiten badira.
6. **Ikasturte bakoitzaren amaieran, eta betiere urte bakoitzeko uztailearen 31 baino lehen,** honako egiaztagiri hauek aurkeztu beharko ditu:
 - a. **-Jarduketaren memoria,** urteko prestakuntza-programan egindako jarduerekin eta lortutako emaitzekin.
 - b. **-Memoria ekonomikoa,** musika-trebakuntza programaren ondoriozko gastu eta sarreraren justifikazioarekin. Honako hauek izan beharko ditu:
 1. Gastuen zerrenda zehatza: hartzekoduna, faktura-zenbakia edo agiri parekidea, jaulkipen-data eta ordainketa-data. Hasierako gastuaren aurreikuspenarekin alderatuta egondako desbideratzeak adieraziko dira.
 2. Sarreraren zerrenda zehatza (kuotak, matrikulak...) edo musika-trebakuntzarako programa finantzatu duten dirulaguntzak zenbatekoarekin eta eman duen administrazioarekin edo erakunde publiko edo pribatuarekin.

2. **Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez badira, jasotako dirulaguntza itzuli beharko du, baita** Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailearen 21eko 887/2006 EDren 91. artikulutik 93ra bitartekoetan **dirulaguntza itzultzeko aurreikusitako arrazoiren bat egonez gero ere.**

• ZIGOITIKO UDALAK:

1. **Zigoitiko udalerrian ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAK** egindako **urteko musika-trebakuntzako programa garatu eta ematean egondako defizita finantzatu beharko du hitzarmen hau indarrean den bitartean, Udalak ekitaldi ekonomiko bakoitzean ezarritako aurrekontu-aplikazioaren gain.**

Defizita esatean, musika-trebakuntzarako urteko programa eman, garatu eta kudeatzearen ondoriozko sarrerak eta gastuak konparatu eta egondako emaitza negatiboa esan nahi da. **Diruz lagundu daitekeen gehieneko muga ekitaldi ekonomiko bakoitzean indarrean den udal aurrekontuaren aurrekontu-aplikazioan dagoen zuzkidura ekonomikoa izango da,** eta urtero finkatuko da ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAK aurkeztutako trebakuntza-programaren hasierako sarreraren eta gastuen aurreikuspena kontuan izanda.

Zigoitiko Udalak ikasturte bakoitzerako dirulaguntza horren ordainketa aurreratua izapidetuko du **justifikazioa egin aurretik,** musika-prestakuntzako programa gauzatzeko beharrezko finantzaketa gisa, eta ez da beharrezkoa izango bermerik ezartzea.

Udalaren dirulaguntza bateragarria izango da beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatuetatik datozen edozein dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrerekin.
2. **Musika-trebakuntzako programa egiteko behar diren udal instalazio, ekipamendu eta altzariak laga beharko dira, eta erabilera laga den udal eraikineko argindarraren, uraren, berogailuaren eta erantzukizun zibileko aseguruaren gastuak ere ordainduko dira.**

HIRUGARRENA.- Sinatzaileek hartutako konpromisoak eta hitzarmena jarraitu, zaindu eta kontrolatzeko organo arduraduna **Batzorde bat izango da** eta Zigoitiko Udaleko udal-talde bakoitzeko ordezkari bat eta ASOCIACIÓN MUSICAL DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAKo ordezkari kopuru berdina egongo dira Batzorde horretan.





LAUGARRENA.- Hitzarmen honetako hizpaketa oro **eraldatzeko, sinatzaileen ahobatezko akordioa beharko da.**

BOSGARRENA.- Hitzarmen honek **4 urteko indarraldia izango du formalizatzen den egunetik hasita.** Epe hori amaitu aurretik, hitzarmen hau sinatu duten aldeek **aho batez adostu ahal izango dute luzatzea 4 urtez edo iraungi arte,** 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan aurreikusitakoaren bat etorrira.

SEIGARRENA.- 40/2015 Legearen 51. artikulua xedatuaren arabera, Hitzarmen hau **deuseztatzeko zergatiak** izango dira:

1. Indarraldia igarotzea, luzapena adostu gabe.

2. Sinatu duten aldeek ahobatezko akordioa.

3. Sinatu duten aldeek hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea. Horrelakoetan aldeetako edonork jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, bete gabeko betebeharrak edo konpromisoak epe jakin batean betetzeko. Hitzarmena jarraitu, zaindu eta kontrolatzeko organo arduradunari emango zaio errekerimendu horren berri. Epea igaro eta bete gabe jarraituz gero, bete ez duen aldeari jakinaraziko zaio eta Hitzarmen hau deuseztatuta geldituko da, eta eragindako kalteen ordaina ere egon daiteke.

4. Hitzarmena deuseztatzen duen erabaki judiziala.

5. Indarrean den legerian aurreikusitako beste edozein kausa.

ZAZPIGARRENA.- Bi aldeek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenaren mende jarriko dituzte egon daitezkeen auzigaiak.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmen honetan ez dauden alderdi guztietarako (lege eta funtzionamendu arlokoak) Udal honetan jarduera kulturalak, kirolekoak eta/edo sozialak antolatzen laguntzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen berariazko ordenantzan xedatutakoa ezarriko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaoaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 EDn ezarritakoa ere.

Eta ados daudela adierazteko, bi aldeek sinatu dute hitzarmen hau.

249/2024 espedientea. ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEA ELKARTEAren hitzarmena onesteko irizpena, euskal dantza tradizionalak irakatsi eta hedatzeko

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa / aho batez

Alkate jaunak udalbatzak onesteko aurkeztu du ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEA ELKARTEAren aldeko dirulaguntza izenduna arautzeko hitzarmena, Zigoitian euskal dantza tradizionalak irakatsi eta hedatzeko, 2024ko uztailaren 15eko Informazio Batzarrak aldeko irizpena eman baitzuen.

Aztertu da ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEA ELKARTEArentzako dirulaguntza izendunaren hitzarmen arautzailea 2024ko azaroaren 10etik 2028ko azaroaren 9ra euskal dantza tradizionalak irakatsi eta hedatzeko, Udal honek eta aipatutako elkarteak sinatu beharrekoa.

Ikusi da hitzarmen hori sinatzea justifikatzeko memoria, 2024ko maiatzaren 8an administrazio orokorreko teknikariak egindakoa.

Udalbatza osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Onestea ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEArentzako dirulaguntza izendunaren hitzarmen arautzailea 2024ko azaroaren 10etik 2028ko azaroaren 9ra euskal dantza tradizionalak irakatsi eta hedatzeko; testua akordio honi erantsi zaio.

BIGARRENA.- Alkateari ahalordea ematea hitzarmen hori formalizatzeko.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEAri





ematea, dagozkion ondoreetarako eta aipatutako hitzarmen arautzailea formalizatzeko.

ERANSKINA

ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEAREN ALDEKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEKO HITZARMENA, ZIGOITIKO UDALERRIAN EUSKAL DANTZA TRADIZIONALAK IRAKATSI ETA HEDATZEKO

BILDUTA

Batetik, AINHOA PÉREZ VALLE, ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEA ELKARTEAREN (IFZ: G01550649) presidentea, haren izenean eta ordezkatzuz.

Eta bestetik, JAVIER GORBEÑA GARCÍA jauna, ZIGOITIKO Udaleko alkate-udalburua, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikulua araberaren duen ordezkartzaren arabera eta hitzarmen hau sinatzeko ahalarekin, 2024ko uztailaren 22ko udalbatzaren akordio bidez.

Bi aldeek elkarri aitortu diote ekintza honetarako beharrezko lege-gaitasun nahikoa, honako aurrekari hauek kontuan izanda:

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Oketa Alai Dantza Taldea duela 30 urte baino gehiago sortu zen Oketa kirol, kultura eta aisiako elkartearen baitan, euskal dantza tradizionalak hedatu eta irakasteko.

BIGARRENA.- Asociación Musical Dominizubi Musika Elkarteak 2011z geroztik Zigoitiko udalerrian emandako musika-trebakuntzako programaren baitan hartu zuen parte 2015/2016 ikasturtera arte Oketa Alai Dantza Taldeak euskal dantza tradizionalak emateko.

HIRUGARRENA.- 2016ko irailean, musika-eskola Asociación Musical Dominizubi Musika Elkarteak kudeatzen zuenez, proiektua behar bezain sendoa zenez, gero eta ikasle gehiago zuenez eta euskal dantza tradizionalen irakaskuntza eta hedatzea sustatzeko, Oketa Alai Dantza Taldeak elkartearen eratu eta ibilbidea bakarrik egiten hastea erabaki zuen.

LAUGARRENA.- 2016ko azaroaren 9an ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEA ELKARTEAREKIN hitzarmen bat sinatu zen, euskal dantzen prestakuntza- eta hedapen-programa egiteko Zigoitiko udalerrian 4 urteko hasierako epean, beste 4 urtez luzatzeko aukerarekin.

BOSGARRENA.- 2024ko azaroaren 9an amaitzen da hitzarmen horren indarraldia eta ezingo da luzatu hurrengo urteetarako.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.1 artikulua honako hau ezartzen du: *“Udalerrian, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jardueraren mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.”*

Eta aipatutako lege horretako 25.2 artikulua ere honakoa xedatzen du: *“Udalerrian, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak betetzeko ditu:*

m) kultura eta kirolerako jarduerak zein instalazioak”.

BIGARRENA.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen





17.1.20) artikulua ezartzen du udalerrien eskumen propioa izango dela:

“20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.”

HIRUGARRENA.- Zigoitiko Udalak bere eskumenen baitan udalerriko biztanleria euskal dantza tradizionala trebatzea sustatzeko xedea du eta horien aberastasun kulturala hedatzeko ere bai.

LAUGARRENA.- Asociación Oketa Alai Dantza Elkarteak bere estatutuetan honako xede hauek aipatzen ditu, besteak beste:

-Gure kultura hedatzea, sustatzea, garatzea, irakastea eta ikertzea Euskal Herriko dantzen arloan.

-Gure kulturako dantzak irakasteko jarduerak garatzea taldeei eta jarduerak eskaintzean Euskal Herriko lurralde osoan batez ere.

BOSGARRENA.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikulua honela definitzen ditu hitzarmenak: *“Ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek (...) zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera. (...) Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak.”*

SEIGARRENA.- 40/2015 Legearen 48.3 artikulua honako xedatzen du: *“Hitzarmenak sinatuz (...) erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezela lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete”.* *“Hitzarmenak diru-laguntza bat bideratzen badu, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala badagokio, aplikatu beharreko autonomia-erkidegoko garapen-araudian aurreikusita dagoena bete beharko du.”*

ZAZPIGARRENA.- Amaitzeko, 40/2015 Legearen 50.1 artikulua honako hau ezartzen du: *“hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea”.*

Nahi den ekintza gauzatze aldera, aipatutako aldeek honako klausula hauek onartu dituzte:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honek **ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEA**ren aldeko dirulaguntza izendunaren baldintzak arautzea du xede, Zigoitiko udalerrian euskal dantza tradizionalak irakasteko eta hedatzeko.

BIGARRENA.- Hitzarmen hau gauzatzeko, aldeek hitza ematen dute honako betebeharrak beteko dituztela:

• ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEA ELKARTEAK:

1. Euskal dantza tradizionalen trebakuntza-programa diseinatzea ikasturte bakoitzerako eta Zigoitian euskal dantzei buruz egingo diren jardueren edo ekitaldien programa diseinatzea, baita udalerrira ordezkatzu beste udalerrira batzuetan egingo dituen ekitaldiak ere (hitzarmen honen indarraldian). Zigoitiko Udalarik aurkeztu beharko zaio urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen eta, dagokionean, ikasturtea hasi aurretik. Era berean, trebakuntzako programarekin batera programa gauzatzearen ondoriozko gastuen hasierako aurreikuspen bat aurkeztu beharko da, baita sarrera guztiak (kuotak, matrikulak, etab.) eta beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako beste finantzazio-iturriak ere bai.
2. Zigoitiko Udalarik jakinarazi beharko dio hasieran aurkeztutako trebakuntza-programaren edo euskal dantza tradizionalarekin zerikusia duten ekitaldien diseinuan egin nahi duen aldaketa oro, aldaketa egin aurretik adosteko.





3. **Zigoitiko Udalak** euskal dantzetan trebatzeko programarako utzitako **udal titulartasuneko instalazioak, ekipoak eta altzariak zuzen erabili beharko ditu**, eta Udalari jakinarazi beharko dio horietako egondako gorabehera, matxura edo kalte oro.
4. Zigoitiko Udalari jakinarazi behar dio **materiala erosi beharra dagoela** euskal dantzak ikasturte edo maila desberdinetan emateko, **ezinbestekoak badira ikastaroak emateko**. Horretarako **material horien gastuaren proposamen ekonomikoa aurkeztuko da, erosi aurretik onesteko**.
5. **Berariaz adieraziko du Zigoitiko Udalaren babesa** euskarri grafiko, idatzi edo entzuteko euskarri guztietan, euskal dantza tradizionalak trebatzeko programarako egin badira edo Zigoitiko udalerrian antolatutako ekitaldi, jarduera eta emanaldiengatik egin badira edo udalerria ordezkatzuz Asociación Oketa Alai Dantza Taldea Elkarteak parte hartu behar badu.
6. **Ikasturte bakoitzaren amaieran, eta betiere urte bakoitzeko uztailaren 31 baino lehen, honako egiaztagiri hauek aurkeztu beharko ditu:**

-Jarduketaren memoria, urteko prestakuntza-programan eta euskal dantzak hedatzeko egindako jardurekin eta lortutako emaitzekin.

-Memoria ekonomikoa, trebakuntza eta hedatze programaren ondoriozko gastu eta sarreraren justifikazioarekin. Honako hauek izan beharko ditu:

1. Gastuen zerrenda zehatza: hartzekoduna, faktura-zenbakia edo agiri parekidea, jaulkipen-data eta ordainketa-data. Hasierako gastuaren aurreikuspenarekin alderatuta egondako desbideratzeak adieraziko dira.

2. Sarreraren zerrenda zehatza (kuotak, matrikulak...) edo musika-trebakuntzarako programa finantzatu duten dirulaguntzak zenbatekoarekin eta eman duen administrazioarekin edo erakunde publiko edo pribatuarekin.

7. **Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez badira, jasotako dirulaguntza itzuli beharko du, baita** Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 EDren 91. artikulutik 93ra bitartekoetan dirulaguntza itzultzeko aurreikusitako arrazoiren bat egonez gero ere.

• ZIGOITIKO UDALAK:

1. Zigoitiko udalerrian ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEA ELKARTEAK **euskal dantza tradizionalak irakatsi eta hedatzeko egindako urteko programa garatu eta ematean egondako defizita finantzatu beharko du hitzarmen hau indarrean den bitartean, Udalak ekitaldi ekonomikoko bakoitzean ezarritako aurrekontu-aplikazioaren gain.**

Defizita esatean, euskal dantzak irakatsi eta hedatzeko programa eman, garatu eta kudeatzearen ondoriozko sarrerak eta gastuak konparatu eta egondako emaitza negatiboa esan nahi da.

Diruz lagundu daitekeen gehieneko muga ekitaldi ekonomikoko bakoitzean indarrean den udal aurrekontuaren aurrekontu-aplikazioan dagoen zuzkidura ekonomikoa izango da, eta urtero finkatuko da ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEA ELKARTEAK aurkeztutako trebakuntza- eta hedatze-programaren hasierako sarreraren eta gastuen aurreikuspena kontuan izanda.

Zigoitiko Udalak ikasturte bakoitzerako tramitatuko du dirulaguntza horren ordainketa aurreratua justifikatu aurretik, euskal dantzetan trebatu eta hedatzeko programa gauzatzeko beharrezko finantzazio gisa, bermeak ezarri behar gabe.

Udalaren dirulaguntza bateragarria izango da beste administrazio publiko edo erakunde





publiko edo pribatuetatik datozen edozein dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrerekin.

2. **Euskal dantza tradizionalak irakatsi eta hedatzeko programa egiteko behar diren udal instalazio, ekipamendu eta altzariak laga beharko dira, eta erabilera laga den udal eraikineko argindarraren, uraren, berogailuaren eta erantzukizun zibileko aseguruaren gastuak ere ordainduko dira.**

HIRUGARRENA.- Sinatzaileek hartutako konpromisoak eta hitzarmena jarraitu, zaindu eta kontrolatzeko organo arduraduna **Batzorde bat izango da eta Zigoitiko Udaleko udal-talde bakoitzeko ordezkari bat eta ASOCIACIÓN OKETA ALAI DANTZA TALDEA ELKARTEKO ordezkari kopuru berdina egongo dira Batzorde horretan.**

LAUGARRENA.- Hitzarmen honetako hizpaketa oro eraldatzeko, **sinatzaileen ahobatezko akordioa beharko da.**

BOSGARRENA.- Hitzarmen honek **4 urteko indarraldia izango du formalizatzen den egunetik hasita.** Epe hori amaitu aurretik, **hitzarmen hau sinatu duten aldeek aho batez adostu ahal izango dute luzatzea 4 urtez edo iraungi arte,** 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan aurreikusitakoaren bat etorrira.

SEIGARRENA.- 40/2015 Legearen 51. artikulua xedatuaren arabera, Hitzarmen hau **deuseztatzeko zergatiak** izango dira:

1. **Indarraldia igarotzea, luzapena adostu gabe.**
2. **Sinatu duten aldeek ahobatezko akordioa.**
3. **Sinatu duten aldeek hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.** Horrelakoetan aldeetako edonork jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, bete gabeko betebeharrak edo konpromisoak epe jakin batean betetzeko. Hitzarmena jarraitu, zaindu eta kontrolatzeko organo arduradunari emango zaio errekerimendu horren berri. Epea igaro eta bete gabe jarraituz gero, bete ez duen aldeari jakinaraziko zaio eta Hitzarmen hau deuseztatuta geldituko da, eta eragindako kalteen ordaina ere egon daiteke.
4. **Hitzarmena deuseztatzen duen erabaki judiziala.**
5. **Indarrean den legerian aurreikusitako beste edozein kausa.**

ZAZPIGARRENA.- Bi aldeek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenaren mende jarriko dituzte egon daitezkeen auzigaiak.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmen honetan ez dauden alderdi guztietarako (lege eta funtzionamendu arlokoak) Udal honetan jarduera kulturalak, kirolekoak eta/edo sozialak antolatzen laguntzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen indarrean den berariazko ordenantzan xedatutakoa ezarriko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaoaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 EDn ezarritakoa ere.

Eta ados daudela adierazteko, bi aldeek sinatu dute hitzarmen hau.

416/2024 espedientea. ZIGOITIABAI ELKARTEArentzako dirulaguntza izenduna onesteko irizpena, bidezko trantsizio sozio-ekologikorako eredu bat defendatzeko jarduerak egiteko.

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa / aho batez

Alkate jaunak udalbatzak onesteko aurkeztu du ZIGOITIABAI. TRANTSIZIO SOZIO-EKOLOGIKO JUSTUAREN ALDE elkarteari dirulaguntza izenduna emateko proposamena, 2024an bidezko trantsizio sozio-ekologikoaren eredia defendatzeko jarduerak egiteko. Informazio Batzarrak aldeko irizpena eman zion 2024ko uztailaren 15eko bilkuran.

Udalbatza osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**





Ikusi da ZIGOITIABAI.TRANTSIZIO SOZIO-EKOLOGIKO JUSTUAREN ALDE elkarteak 2024ko ekainaren 18an aurkeztutako dirulaguntza eskaria. Eskari horretan Udal honen lankidetzak ekonomikoa eskatu zuen Solaria Zierbena Solar 2, 3 eta 4 izeneko eguzki planta fotovoltaikoak instalatzeko proiektuaren ingurumen eraginaren ebaluazioaren eta aurretiazko administrazio baimenaren aurkako alegazioak aurkezteko, Zigoitiko udal mugartean eragina baitu; era berean, Zigoitiko herritarren artean eztabaida eta trebakuntza sustatu nahi ditu trantsizio energetikoaren erronkari buruz.

Ikusi da elkarte horrek egindako jardueren memoria.

2024ko ekainaren 10eko 2024-0288 Alkatetzaren Ebazpen bidez kreditu gehigarriaren 3/2024 espedientea onartu zen, zeinak diruzaintzako gastu orokorretarako geldikinen kargura 2024ko ekitaldirako indarrean den udal aurrekontuko 1722.481.000 aurrekontu-aplikazioari 4.000 euroko zuzkidura egitea onartu zuen ZIGOITIABAI.TRANTSIZIO SOZIO-EKOLOGIKO JUSTUAREN ALDE ELKARTEARENTZAT, 2024an bidezko trantsizio sozio-ekologikoaren eredia defendatzeko jarduerak egiteko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikulua xedatzen duena ikusi da: **“Justifikazioko kontua nahitaez eman behar du onuradunak edo erakunde lankideak eta aitorpena egiten duenaren erantzukizunpean erantsi behar dira gastuaren justifikatzaileak edo balio juridikoa duen beste edozein dokumentu, dirulaguntza publikoaren xedea betetzen dela ziurtatu ahal izateko. Dirulaguntzarekin finantzatuta egindako jardueren aitorpena eta gastua egongo dira kontuan, gastu bakoitza banakatuta egongo da eta **jarduera egiteko epea amaitu eta gehienez ere hiru hilabetean aurkeztuko da.****

3. Gastuak egiaztatzeko fakturak eta balio parekidea duten agiriak aurkeztuko dira, merkataritzako trafiko juridikoan balioa dutenak edo efikazia administratiboa dutenak.

4. Jarduerak finantzatzeko dirulaguntzaz gain funts propioak edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuk izan direnean, zenbatekoa, jatorria eta funts horiek diruz lagundutako jardueretan erabili izana justifikatu beharko da.

Ikusi da, halaber, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 EDren 72. artikulua, eta honakoa dio: **“Justifikazioko kontuak, oro har, honako agiri hauek izango ditu:**

1. Jarduketaren justifikazio-memoria, diru-laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena. Zer proiektu jarduera gauzatu diren eta zer emaitza izan diren adierazi behar dira.

2. Egindako jardueren gastuaren memoria ekonomiko justifikatzailea, honakoekin:

a) Proiektuaren **gastuak** eta **inbertsioak** sailkatzen dituen **zerrenda**. Honako hauek identifikatu beharko dira bertan: **hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa data**. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera ematen bada, izandako desbideratzeak adieraziko dira.

b) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan balio parekidea duten agiriak edo efikazia administratiboa dutenak **aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan sartuta** eta, dagokionean, **ordainketaren ziurtagiria**.

c) **Dirulaguntza jaso duen jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarreraren eta laguntzen zerrenda xehekatua (zenbatekoa eta jatorria ere agertu beharko dira).**

f) **Onuradunak Dirulaguntzen Lege Orokorreko 31.3 artikulua ezarriz eskatu behar izan dituen aurrekontuak.**

g) **Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 EDren 65. artikuluan xedatuarekin bat etorrita eta indarrean den legeriak emandaki eskumenen arabera, Udaltzatzaile aho batez **ONETSI DU:**

LEHENENGOA.- ZIGOITIABAI. TRANTSIZIO SOZIO-EKOLOGIKO JUSTUAREN ALDE elkarteari 4.000 euroko dirulaguntza izenduna ematea, 2024an bidezko trantsizio sozio-ekologikoaren eredia defendatzeko jarduerak egiteko. Dirulaguntza hori xede berdinerako edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin bateragarria da.





BIGARRENA.- 4.000 euroko dirulaguntzaren aurrerakina ordaintzea, indarrean den udal-aurrekontuko 1722.481.000 aplikazioaren kargura.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea ZIGOITIABAI.TRANTSIZIO SOZIO-EKOLOGIKO JUSTUAREN ALDE elkarteari, eta dagozkion baliabideak ematea.

LAUGARRENA.- Eskatzea ZIGOITIABAI.TRANTSIZIO SOZIO-EKOLOGIKO JUSTUAREN ALDE elkarteari diruz lagundutako jarduerak amaitu eta hiru hilabeteko epean eta, betiere 2025eko martxoaren 31 baino lehen, jarduera horiek justifikatzeko kontua aurkez dezala, akordio honetako azalpenen bigarren eta hirugarren paragrafoetan zehaztutako baldintzetan eta edukiarekin.

BOSGARRENA.- Emandako dirulaguntza Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (BDNS) argitaratzea.

419/2024 espedientea. 2024 urterako Zigoitiko Udaleko zerbitzura dauden langileen soldataren iguera onesteko irizpena.

Aldekoa

Bozketa-mota: ohikoa / aho batez

Alkate jaunak Udaltzari eskatu dio ordainsarien % 2ko igoseraren onespina bozkatzeko, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginezko ondoreekin, eta 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden oinarritzko ordainsarien, ordainsari osagarrien eta ezohiko pagei aplikatuta. Onespenaren aldeko irizpena 2024ko uztailaren 15eko Informazio Batzordearen bilkuran eman zen.

Ikusi da Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituen eta zerga, energia eta gizarte arloan premiazko neurriak hartzen dituen ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren (2024ko ekainaren 27ko EAOn argitaratua) 6. artikulua, 2024ko sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen soldata igoserari buruzkoa: "2024. urtean, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak, gehienez, % 2ko gehikuntza globala izan ahalko dute, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko (azken horien barruan sartzen dira 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakotik eratorritako igoserak). Ordainsari horiek homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira, erkaketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari, bai antzinasunari dagokionez. Ordainsarien iguera horrekin 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

2. Halaber, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, hala badagokio, soldaten % 0,5eko iguera gehigarri eta bateragarria aplikatuko zaie 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei, baldin eta 2022, 2023 eta 2024ko KPIHren aldakuntzaren baturak 2022, 2023 eta 2024an pilatutako soldataren iguera finkoa gainditzen bada.

Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) 2024ko KPIHaren datuak argitaratu ondoren, iguera horren aplikazioa onetsiko da ministro-kontseiluaren erabakiaren bidez, zeina EAOn argitaratuko den.

3. Gizarte-ekintzako gastuak ezingo dira oro har areagotu 2023koei dagokionez.

4. Sektore publikoan enpleguko pentsio-planerako edo aseguru kolektiboaren kontratuetarako ekarpenak egin ahal izango dira, betiere atal honetan finkatutako gehikuntza globala gainditzen ez bada.

5. Langileen soldata-kostua artikulua honen 1-4 ataletan aurreikusitako gehieneko ehunekoan areagotu ahal izango da alderatzen diren bi aldietarako modu homogeneoan.

6. Artikulu honen 1-4 ataletan adierazitakoa gorabehera, gizarte-ekintzako gastuak eta langile lan-kontratudunen produktibitatea edo ordainsari aldakorra homogeneotasun-baldintzen arabera zehaztuko da zenbaki efektiboek dagokionez.

7. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 14. artikuluan, III. tituluko I eta II kapituluetan, 31. artikuluan, 32. artikuluen lehenengo puntuan eta hogeita seigarren eta hogeita zazpigarren xedapen gehigarrietan eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriko bigarren puntuan aurreikusitako kantiitateak artikulua honetako 1-4 ataletan ezarritako baldintzetan areagotuko dira.

Bestetik, abenduaren 23ko 31/2022 Legearen IV eta V. eranskinetan aurreikusitako kantiitateak, abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriarekin bat eguneratuta, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin areagotuko dira, artikulua honetako





1-4 atalean ezarritako moduan. Zenbateko horiek enplegatzailerari dagokion Belaunaldi arteko Ekitate Mekanismoaren kuotarekin areagotuko da, betiere Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 127 bis artikuluan eta berrogeita hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoa aplikatuta.

8. Artikuluak oinarritzko izaera du 8. atala kenduta eta Espainiako Konstituzioaren 149.1.13A eta 156.1 artikuluen babesean egiten da.

Neurri honek 2022ko urriaren 19an sinatutako XXI. mendeko Administrazioarako Esparru Akordioa betetzen du. Akordio horrek urte anitzeko esparrua ezarri zuen 2022 eta 2024 aldian Administrazio Publikoen zerbitzura zeuden langileen soldataren igoerarako, non soldataren igoera finkoa ezarri zenaldi horretarako, gehi kontsumoko prezioen indize harmonizatuaren garapenari (KPIH) lotutako igoera gehigarria.

Ondorioz, ikusi da 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden oinarritzko ordainsariak (oinarritzko soldata eta hirurtekoak), ordainsari osagarriak (lanpostu bakoitzari esleitutako lanpostu-mailako osagarria eta osagarri espezifikoak) eta ekaina eta abenduko ezohiko pagak % 2an igo behar zaizkiela Udal honetako funtzionario zein langile lan-kontratudunei, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginezko ondoreekin.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden oinarritzko ordainsarien, ordainsari osagarrien eta ezohiko pagak % 2ko igoera onestea Udal honetako funtzionario eta langile lan-kontratadunentzat, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginezko ondoreekin.

BIGARRENA.- Erabakia udal kontu-hartzailetzari helaraztea 2024 ekitaldirako udal aurrekontuan indarrean dauden aurrekontu-aplikazioetan dagozkion esleipenak egin ditzan.

HIRUGARRENA.- Erabakia Udaleko lan-aholkularitzari helaraztea, aurtengo abuztuko nominan adostutako soldaten igoerari dagozkien atzerapenak ordain ditzan.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Zigoitiko Udaleko langileei, jakinaren gainean egon daitezen.

420/2024 espedientea. Lehenengo alkateordeak arduraldi partzialari uko egin izana onesteko irizpena.

Aldekoa

Bozketa-mota: ohikoa / aho batez

Alkate jaunak Udalbatzari eskatu dio CARLOS ITURRIOZ MALAINA zinegotzi jaunak egindako uko egitea onesteko. Horren bidez, % 35eko arduraldi partzialeko erregimenari uko egiten dio bere funtzioekin jarraitzeko. Informazio Batzordeak irizpidearen aldeko txostena egin zuen 2024ko uztailaren 15eko bilkuran.

Ikusi da lehen alkateorde eta Kultura, kirola, hezkuntza, ingurumena, komunikazioa eta bizikidetzaren arloko CARLOS ITURRIOZ MALAINA zinegotzi jaunak aurkeztutako idatzia. Bertan adierazitako arrazoi pertsonalak medio, uko egiten dio jardunaldiko % 35eko erregimenari eta 14.805 euro gordinetako urteko ordainsariari. Udalbatzak arduraldi eta ordainsari hori onetsi zuen 2023ko ekainaren 29ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez. Hala ere, zinegotzi eta alkateorde izaten jarraituko du.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- CARLOS ITURRIOZ MALAINA zinegotzi jaunak arduraldi partzialeko % 35eko jardunaldiari eta 14.805 euro gordinetako urteko ordainsariari egindako uko egitearen berri izatea. Hala ere, lehen alkateorde eta Kultura, kirola, hezkuntza, ingurumena, komunikazioa eta bizikidetzaren arloko zinegotzi izaten jarraituko du, arduraldirik gabe. Gainera, uko egitearen ondorio gisa, Udalbatzako kide anitzeko organoko saioretara bertaratzearen truke laguntzak jasoko ditu, 2023ko ekainaren 29an Udalbatzak erabakitako zenbatekoan.





BIGARRENA.- Udaleko lan-aholkularitzari erabakiaren berri ematea, zinegotzia Gizarte Segurantzako araubide orokorrean baja emateko, 2024ko uztailaren 22tik aurrera.

HIRUGARRENA.- CARLOS ITURRIOZ MALAINA jaunari erabakiaren berri ematea, dagozkion ondoreetarako.

441/2024 espedientea. 5/2024 osoko bilkurako kreditu gehigarria onesteko erabaki proposamena

Aldekoa **Bozketa-mota:** ohikoa / aho batez

Tokiko Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak bere 91.4 artikuluan agintzen duenarekin bat etorritik, alkate jaunak, premiazko arrazoiak direla eta, Udalbatzari eskatu behar dio honako gai hau aintzat hartzeko, 2024ko uztailaren 15eko saioan Informazio Batzordeak ez zuelako irizpena eman: hasiera batean onestea 5/2024 kreditu gehigarria.

Alkateak eskatu du gai hori premiazkoztat jotzeko, eta Udalbatzak aho batez premiazkoztat jotzea eta eztabaidatzea onartu du. Jarraian gai horri buruz hitz egin dute.

Premiazkoa da ASOCIACIÓN DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAren bideragarritasun ekonomikoa bermatzea 2024-2025 ikasturteari aurre egin ahal izateko; izan ere, udalerriko musika-eskola irakaskuntza espezifikoko zentro ez-arautua izatera pasa da urriaren 27ko 289/1992ko Dekretuarekin bat. Ikasleen kuotak eta matrikulak ordaintzeko sistema aldatu da (urtean hirutan izatetik hilerokoak izatera) eta, ondorioz, lehen urte honetan 2024 ekitaldirako udal aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza izenduna areagotu behar da, ikasturte hasieran egongo den desfaseari aurre egiteko (matrikula eta kuoten diru-sarrerak eta gastuak). Hori dela eta, ezin da hurrengo ekitaldira arte atzeratu, hargatik interes korporatiboak eragotzi gabe.

Eskola irakaskuntza espezifikoko ez-arautuko zentro bihurtzen denean, zentroko gastuak ikasleen, Zigoitiako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpenekin finantzatu da zentro horietarako dirulaguntzen bidez; ondorioz, Udal honen ekarpen ekonomikoa egungoa baino txikiagoa izango da.

Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluekin eta Aurrekontua Betetzeko Udal Araudiaren 13. artikuluekin bat, 1/2024. Udalbatzaren kreditu gehigarriari buruzko espedientea irakurri da, zeina indarrean dagoen udal aurrekontuko kredituak aldatzeko izapidetu zen.

Ikusi dira behin-behineko idazkari-kontu hartzaileak egindako txostenak.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Onestea 5/2024 zenbakiko kreditu GEHIGARRIA emateari buruzko espedientea, 80.000,00 euroko zenbatekoan. Erabiliko diren gastuen partidak eta finantzatzeko baliabideak ondoren zehazten dira:

GASTUEN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
334.481.001	ASOCIACIÓN DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAri emandako dirulaguntza izenduna areagotzea, urriaren	80.000€

Cód. Validación: 7F6XSTLFJMFAG9993SSRQP2XC
Verificación: https://zigoitia.euzkadi.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 18 de 34





	27ko 289/1992 Dekretuarekin bat musika-eskola irakaskuntza espezifikoko zentro ez-arautu gisa abian jartzeko	
AREAGOTU BEHARREKO GASTUA, GUZTIRA		80.000€
DIRU-SARREREN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
870.01	Diruzaintzaren soberakina gastu orokorretarako	80.000€
DIRU-SARRERAREN ALDAKETA, GUZTIRA		80.000€
<p>BIGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea, 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutako modu eta epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.</p> <p>HIRUGARRENA.- Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean.</p> <p>LAUGARRENA.- Erreklamaziorik egonez gero, hilabeteko epean beste erabaki bat hartzea.</p> <p>BOSGARRENA.- Erabakia argitaratzea arauk ezarritako moduan eta epean.</p> <p>SEIGARRENA.- Aldi berean, espedientearen kopia bat bidaltzea Arabako Foru Aldundira.</p>		

438/2024 espedientea. Alderdi Popularrak aurkeztutako mozioa onesteko erabaki proposamena, Alavabus garraio publikoaren 1. lineari buruzkoa.

Aldekoa	<p>Bozketa-mota: ohikoa / aho batez</p> <p>-Aldekoak: 4 boto, Elisabeth Ochoa de Eribe Román Alderdi Popularreko (PP) zinegotziarena eta Eduardo Lorza García, Ainhoa Fernández Domínguez eta Xabier Nafarrate Cadiñanos Euskal Herria Bilduko (EH-BILDU) zinegotziena.</p> <p>-Kontrakoak: 0 boto</p> <p>-Abstentzioak: 4 boto, alkate jaunarena eta Carlos Iturrioz Malaina, Maite Cobo Barcala eta Iñigo Gracianteparaluceta Lpz. de Ipiña Eusko Alderdi Jeltzaleko (EAJ-PNV) zinegotzienenak.</p>
<p>Tokiko Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, bere 91.4 artikuluan agintzen duenarekin bat etorritik, alkate jaunak, premiazko arrazoiak direla eta, Udalbatzari eskatu behar dio honako gai hau aintzat hartzeko, 2024ko uztailaren 15eko saioan Informazio Batzordeak ez zuelako irizpena eman: Alderdi Popularra (PP) udal taldeak aurkeztutako mozioa hasieran onestea, Arabako Foru Aldundiak (Alavabus) kudeatzen duen garraio publikoaren 1. lineak geralekuetako ordutegiak ez betetzeagatik.</p> <p>Alkateak eskatu du gai hori premiazkotzat jotzeko, eta Udalbatzak aho batez premiazkotzat jotzea eta eztabaidatzea onartu du. Jarraian gai horri buruz hitz egin dute.</p> <p>Elisabeth Ochoa de Eribe Román zinegotziak hitza hartu du, bere udal taldeak aurkeztutako mozioa azaltzeko. Honako hau adierazten da hitzez hitz:</p> <p><i>“ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA, UDALAREN HURRENGO OSOKO BILKURAKO GAI-ZERRENDAN SARTZEKO, EZTABAIDATU ETA ONETS DADIN, ETA SEGURTASUN-NEURRIAK HAR DAITEZEN HAUEN BABESEAN: TOKI-ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 28KO 7/1985 LEGEA, TOKIKO ERAKUNDEEN ANTOLAKETA, FUNTZIONAMENDU ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ARAUDIA</i></p>	





ONESTEN DUEN AZAROAREN 29KO 2568/1986 ERREGE DEKRETUAREN 97.3 ARTIKULUA.

AZALPENA

Azken hilabeteotan bizilagunek jakinarazi digute Vitoria-Gasteiz/Zigoitia 1. lineako geralekueetan ez direla ordutegiak guztiz betetzen ari. Hainbatetan autobusa argitaratutako ordutegia baino lehenago iritsi da eta ezarritako ordutegia baino 2-10 minutu lehenago alde egin du. Ondorioz, hainbat bizilagun ezin izan dira igo.

Autobusak Zigoitiko bizilagunak Gasteizekin konektatzen ditu, eta egunean hiriburuarekin komunikazioa errazten duten zenbait ordutegi daude. Bizilagun asko adinekoak dira edo ez dute bestelako bitartekorik hirira medikuarenera, eskolara, bankuetara edo beste kudeaketa batzuk egitera joateko. Ordutegien aldaketa horrek arazo larriak eta segurtasunik eza eragiten die, ez direlako garraio publikoko zerbitzuez fidatzen.

Alderdi Popularrari kezkatzeko modukoa iruditzen zaio Arabako Foru Aldundiak landa-eremuarekin duen atxikimendurik eza, ez duelako kontrolatzen eta ikuskatzen ordutegiak betetzen diren, eta ondorioz zailagoa izaten da landa-eremu txikietan bizitzea, zeinetan dagoeneko desabantaila gehiago dituzten populazio handiagoa duten hiriekin alderatuta.

Uste dugu gure administrazioak ez duela konponbide erraza duen akats hau zuzentzeko kezkarik.

- 1. Zigoitiko Udalak Foru Aldundiari eskatzen dio Vitoria-Gasteiz/Zigoitia 1. lineako autobusen markesinetan agertzen diren ordutegiak ikuskatzeko eta betearazteko, linea horren erabiltzaileek jasan dituzten arazoak errepikatu ez daitezen.*
- 2. Zigoitiko Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio hurrengo deialdi publikoan, landa eremuko ibilbideak kudeatzeko kontratuaren agirietan, klausula bat gehitzeko zehaztuz autobusa ezin dela geralekutik abiatu argitaratutako ordutegian zehaztutako ordutegia bete arte”.*

Vitoria-Gasteiz/Zigoitia ibilbidea egiten duen 1. lineako autobusaren geralekueetan ezarritako ordutegien ez-betetzeari dagozkion keak jaso ondoren, autobusak adierazitako ordutegia baino lehenago alde egiteagatik, zinegotziak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegituren sailarengana jo zuen, zerbitzua kudeatzen duen administrazioa baita. Bertan erantzun zioten lineak hasierako eta amaierako ordutegiak betetzen dituela, kontratuan adierazten direnak, eta horiek direla soilik haiei exijitu ahal zaizkienak; gainerakoak enpresa adjudikaziodunaren mende daude. Ulertzen du zerbitzua hobetzeko modua aztertu behar dela; izan ere, ezarritako linearen maiztasunaren ondorioz, autobus bat galduz gero, ordu asko itxaron behar dira hurrengoa hartu arte.

Alkate jaunak hitza hartu du adierazteko lineetako gainerako gelditze-ordutegiak orientagarriak direla. Geraleku batzuetan ezin da bost minutu edo gehiago itxaron, errepidean itxaron behar dutelako eta horrek zirkulazioa oztopatuko luke, ez baitago geraleku edo markesinarik. Gainera, eskaera bidezko gelditzeak ere badaude, eta, ondorioz, zaila da ordutegi horiek betetzea, ibilbide batzuetan geldialdi gehiago egiten direlako eskaera horien ondorioz.

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak hitza hartu du adierazteko Euskal Herria Bildu udal-taldeak (EH-BILDU) Alderdi Popularra (PP) udal-taldeak aurkeztutako mozioaren alde bozkaturiko dutela, baina udalerrirako interes orokorreko gaia dela uste dutenez, mozioa PP aipatu gabe onesteko eskatu du. Elisabeth Ochoa de Eribe Román zinegotziak esan du bere aldetik ez dagoela arazorik.

Azkenik alkate jaunak esku hartu du adierazteko bere udal-taldea bozketan abstenituko dela; izan ere, uste dute enpresa adjudikaziodunarentzat oso zaila dela geldialdi guztietako ordutegiak zehatz-mehatz betetzea dagoeneko azaldu dituzten arrazoiengatik.

Mozioaren bozketa egin da eta honako hau izan da emaitza:

-Aldekoak: 4 boto, Elisabeth Ochoa de Eribe Román Alderdi Popularreko (PP) zinegotziarena eta Eduardo Lorza García, Ainhoa Fernández Domínguez eta Xabier Nafarrate Cadiñanos Euskal Herria Bilduko (EH-BILDU) 3 zinegotziena.





-Kontrakoak: 0 boto.

-Abstentzioak: 4 boto, alkate jaunarena eta Carlos Iturrioz Malaina, Maite Cobo Barcala eta Iñigo Gracianteparaluceta Lpz. de Ipiña Eusko Alderdi Jeltzaleko (EAJ-PNV) zinegotzienak.

Horrenbestez, Udalbatza osoak, gehiengoz, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Arabako Foru Aldundiak (Alavabus) kudeatzen duen garraio publikoko Vitoria-Gasteiz/Zigoitia 1. lineako geralekuen ordutegiak ez betetzearen ondoriozko mozioa onestea.

BIGARRENA.- Erabakia Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegituren sailera bidaltzea, enpresa adjudikaziodunari 1. lineako geralekuetan argitaratutako ordutegiak betearazteko eta zerbitzuaren hurrengo lizitazioan baldintzen agirian klausula bat gehitzeko, non adjudikazioduna ezingo den geralekutik atera zehaztutako ordutegiaren aurretik.

ERANSKINA

ZIGOITIKO UDALAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ALAVABUS ZERBITZUKO GARRAIOKO VITORIA-GASTEIZ/ZIGOITIA 1. LINEAKO ORDUTEGIAK EZ BETETZEAGATIK

AZALPENA

Azken hilabeteotan bizilagunek jakinarazi digute Vitoria-Gasteiz/Zigoitia 1. lineako geralekuetan ez direla ordutegiak guztiz betetzen ari. Hainbatetan autobusa argitaratutako ordutegia baino lehenago iritsi da eta ezarritako ordutegia baino 2-10 minutu lehenago alde egin du. Ondorioz, hainbat bizilagun ezin izan dira igo.

Autobusak Zigoitiko bizilagunak Gasteizekin konektatzen ditu, eta egunean hiriburuarekin komunikazioa errazten duten zenbait ordutegi daude. Bizilagun asko adinekoak dira edo ez dute bestelako bitartekorik hirira medikuarenera, eskolara, bankuetara edo beste kudeaketa batzuk egitera joateko. Ordutegien aldaketa horrek arazo larriak eta segurtasunik eza eragiten die, ez direlako garraio publikoko zerbitzuez fidatzen.

Alderdi Popularrari kezkatzeko modukoa iruditzen zaio Arabako Foru Aldundiak landa-eremuarekin duen atxikimendurik eza, ez duelako kontrolatzen eta ikuskatzen ordutegiak betetzen diren, eta ondorioz zailagoa izaten da landa-eremu txikietan bizitzea, zeinetan dagoeneko desabantaila gehiago dituzten populazio handiagoa duten hiriekin alderatuta.

Uste dugu gure administrazioak ez duela konponbide erraza duen akats hau zuzentzeko kezkarik.

1. Zigoitiko Udalak Foru Aldundiari eskatzen dio Vitoria-Gasteiz/Zigoitia 1. lineako autobusen markesinetan agertzen diren ordutegiak ikuskatzeko eta betearazteko, linea horren erabiltzaileek jasan dituzten arazoak errepikatu ez daitezen.
2. Zigoitiko Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio hurrengo deialdi publikoan, landa eremuko ibilbideak kudeatzeko kontratuaren agirietan, klausula bat gehitzeko zehaztuz autobusa ezin dela geralekutik abiatu argitaratutako ordutegian zehaztutako ordutegia bete arte.

293/2021 espedientea. Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obren kontratuaren bosgarren aldaketa onesteko erabaki proposamena.

Aldekoa

Bozketa-mota: ohikoa / aho batez

-Aldekoak: 5 boto, alkate jaunaren eta Carlos Iturrioz Malaina, Maite Cobo Barcala eta Iñigo Gracianteparaluceta Lpz. de Ipiña Eusko Alderdi Jeltzaleko (EAJ-PNV) zinegotzienak eta Elisabeth Ochoa de Eribe Román Alderdi





Popular (PP) udal-taldeko zinegotziarena.

-Kontrakok: 3 boto, Eduardo Lorza García, Ainhoa Fernández Domínguez eta Xabier Nafarrate Cadiñanos Euskal Herria Bilduko (EH-BILDU) zinegotziena.

-Abstentzioak: 0 boto.

Tokiko Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak bere 91.4 artikuluan agintzen duenarekin bat etorrituz, alkate jaunak, premiazko arrazoiak direla eta, Udalbatzari eskatu behar dio honako gai hau aintzat hartzeko, 2024ko uztailaren 15eko saioan Informazio Batzordeak ez zuelako irizpena eman: Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obra-kontratuaren 5. aldaketaren onespena.

Alkateak eskatu du gai hori premiazkotzat jotzeko, eta Udalbatzak aho batez premiazkotzat jotzea eta eztabaidatzea onartu du. Jarraian gai horri buruz hitz egin dute.

Alkateak labur azaldu ditu obra-kontratuan gehitu behar izan diren obra-unitateak, kirol-instalazioen eraikina abian jartzeko izango dituen erabilera-beharrei erantzuteko. Behar horiek, esate baterako, gailu mugikorren irakurketa-tornuak dituzten sarreraren kontrol-sistemak eta sarrera eta irteera kontrolatzeko ateen elektrifikazioa; argiztapenerako instalazio domotikoa, kodedun eta teklatudun armairuak... dira, baita Eguzki Jaiari lotutako ekitaldiak Bengolarra parkean zein udal pilotalekuan egitea ahalbidetuko duten igarobideak egiteko obra-unitateak ere.

Elisabeth Ochoa de Eribe Román zinegotziak hartu du hitza adierazteko kezkatuta dagoela obraren kostua adjudikazio-prezioarekin alderatuta % 26,34 areagotu delako. Ulertzen du obra-unitate gehigarriak beharrezkoak direla etorkizunean eraikina erabiltzeko, baina bere ustez aldaketa horietako batzuk egikaritze-proiektuan jasota egon beharko lukete. Alkate jaunak erantzun du aldaketa batzuk eratorritako arrazoiengatik gehitu behar izan direla, baina beste batzuk obraren proiektuan aurreikusita egon behar izango lirakeela.

Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obra-kontratuaren 5. aldaketaren bozketa egin da, eta honako hau izan da emaitza:

-Aldekoak: 5 boto, alkate jaunaren eta Carlos Iturrioz Malaina, Maite Cobo Barcala eta Iñigo Gracianteparaluceta Lpz. de Ipiña Eusko Alderdi Jeltzaleko (EAJ-PNV) zinegotzien 4 eta Elisabeth Ochoa de Eribe Román Alderdi Popular (PP) udal-taldeko zinegotziaren 1.

-Kontrako 3 boto: Eduardo Lorza García, Ainhoa Fernández Domínguez eta Xabier Nafarrate Cadiñanos Euskal Herria Bilduko (EH-BILDU) zinegotziena.

-Abstentzioak: 0 boto.

2022ko urtarrilaren 24ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez Zigoitiko Udalak onetsi zuen Bengolarra eraikina birgaitzeko obren kontratua esleitzea INDENORT PV eta SLU PROVIDER IBÉRICA SLU ABEEaren alde, 2.908.991,88 euroko zenbatekoan (% 21eko BEZa barne).

2023ko apirilaren 24ko Udalbatzaren erabaki bidez, Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitu eta handitzeko obra-kontratuaren aldaketaren 1. espedientea onetsi zen. Obra Europar Batasuna-Next Generation EU programaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak lagundu du diruz. Hala, ondoren zehazten diren obren prezio berriak onesten dira:

	Partida prezio berriarekin			Partida kontratatutako prezioarekin			Partida orekatua				Kontratuarekin alderatuz egondako igoeraren ehunekoa
	Unit.	Unitateko prezioa	EMA	Unit.	Unitateko prezioa	EMA	EMA	Kontratuaren prezioa	Kontratuaren prezioa, beherapena barne	Kontratuaren prezioa, beherapena eta % 21eko BEZa barne	
1 Saneamendu-kolektorea	37,30	311,42	11.615,97	0,00	0,00	0,00	11.615,97	13.823,00	13.388,92	16.200,59	% 0,56
2 Pilotalekurako konexio elektrikoa	1,00	2.876,21	2.876,21	0,00	0,00	0,00	2.876,21	3.422,69	3.315,21	4.011,40	% 0,14
3 Dorre-garabirako eskalatzea saihesteko babesa	2,00	1.547,34	3.094,68	0,00	0,00	0,00	3.094,68	3.682,67	3.567,02	4.316,10	% 0,15

Cód. Validación: 7F6XSTL.F.IMFA99593SSRQP2XC
Verificación: https://zigoitia.ecoizatelektroika.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 22 de 34





4	Zimendatze-hormak iragazgaiatea	233,08	39,99	9.320,87	0,00	0,00	0,00	9.320,87	11.091,83	10.743,52	12.999,66	% 0,45
5	Jarduera egitea dagoeneko badagoen beheko solairuko egituran	1,00	7.124,23	7.124,23	0,00	0,00	0,00	7.124,23	8.477,83	8.211,60	9.936,04	% 0,34
6	Emendakinak eta leiho-isurkiak kentzea	775,17	11,92	9.240,03	0,00	0,00	0,00	9.240,03	10.995,63	10.650,34	12.886,91	% 0,44
7	Zimenduak saneatu eta erregulatzea	82,85	26,18	2.169,01	0,00	0,00	0,00	2.169,01	2.581,13	2.500,07	3.025,09	% 0,10
8	Fatxadako pitzadura konpontzea	1,00	2.457,18	2.457,18	0,00	0,00	0,00	2.457,18	2.924,04	2.832,22	3.426,99	% 0,12
	Guztira			47.898,17			0,00	47.898,17	56.998,83	55.208,89	66.802,76	% 2,30

2023ko abenduaren 18ko Udalbatzaren erabaki bidez, Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitu eta handitzeko obra-kontratuaren 2. aldaketa onetsi zen. Obra Europar Batasuna-Next Generation EU programaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak lagundu du diruz. Hala, ondoren zehazten diren obren prezio berriak onesten dira:

	Partida prezio berriarekin			Partida kontratatutako prezioarekin			Partida orekatua					
	Unit.	Unitateko prezioa	EMA	Unit.	Unitateko prezioa	EMA	EMA	Kontratuaren prezioa	Kontratuaren prezioa, beherapena barne (beherapena: % 3,1402882)	Kontratuaren prezioa, beherapena eta % 21eko BEZa barne	Kontratuarekin alderatuz egondako igoeraren ehunekoa	
1	Pilotalekuaren egitura egokitzea											
			134.690,79			134.690,79	134.690,79	160.282,04	155.248,72	187.850,95	% 6,47	

2024ko urtarrilaren 31ko Udalbatzaren erabaki bidez, Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitu eta handitzeko obra-kontratuaren 3. aldaketa onetsi zen. Obra Europar Batasuna-Next Generation EU programaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak lagundu du diruz. Hala, ondoren zehazten diren obren prezio berriak onesten dira:

	Partida prezio berriarekin			Partida kontratatutako prezioarekin			Partida orekatua					
	Unit.	Unitateko prezioa	EMA	Unit.	Unitateko prezioa	EMA	EMA	Kontratuaren prezioa	Kontratuaren prezioa, beherapena barne	Kontratuaren prezioa, beherapena eta % 21eko BEZa barne	Kontratuarekin alderatuz egondako igoeraren ehunekoa	
1	Partzelako hesia kentzea	217,35	19,96	4.338,31								
2	Lorategian lurperatutako HEA biga kentzea	36,03	106,67	3.843,32								
3	Aisialdi-eremuko altzariak desmuntatzea eta kentzea	5,00	377,79	1.888,95								
4	Altzairuzko barrak lauza eta zolata lotzeko	170,50	24,20	4.126,10								
5	Fatxada eta zuloen pikatuak	30,00	197,21	5.916,30								
6	Linea elektrikoaren kable-sarea	1,00	64.407,05	64.407,05								
7	Polimerozko isurkiak, 32/48 cm zabal	103,00	68,73	7.079,19	16,50	32,63	538,40	6.540,80	7.783,55	7.539,12	9.122,33	% 0,31
8	KITS bigarren indartze sarea	419,61	23,54	9.877,62								
9	Barneko arotzeriaren egurrezko gaurremarkoak	28,00	110,68	3.099,04								
10	R-90 bermikulita-proiekzioa	318,00	57,48	18.278,64	190,16	18,99	3.611,14	14.667,50	17.454,33	16.906,21	20.456,51	% 0,70
11	R-90 margo intermeszentea	129,30	77,55	10.027,22								
12	Desmuntaketa eta berrezarpena	1,00	6.529,84	6.529,84								
13	AMVISA obra zibila	1,00	14.084,60	14.084,60								
	Guztira			153.496,17			4.149,53	149.346,64	177.722,50	172.141,48	208.291,19	% 7,17

Onestea Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitu eta handitzeko obra-kontratuaren aldaketaren espedientea. Obra Europar Batasuna-Next Generation EU programaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak lagundu du diruz. Hala, ondoren zehazten diren obren prezio berriak onesten dira:

	Partida prezio berriarekin			Partida kontratatutako prezioarekin			Partida orekatua				
	Unit.	Unitateko prezioa	EMA	Unit.	Unitateko prezioa	EMA	EMA	Kontratuaren prezioa	Kontratuaren prezioa, beherapena barne	Kontratuaren prezioa, beherapena eta % 21eko BEZa barne	Kontratuarekin alderatuz egondako igoeraren ehunekoa





										% 21eko BEZa barne	ehunekoa	
1	Pilotalekuren sarrerako lanak eta CGP zutoinak kentzea	1	7.615,40	7615,4								
2	Aluminiozko xafien sabai aizuna	26,10	97,73	2550,753	26,10	21,17	552,54	1.998,22	2.377,88	2.303,20	2.786,88	% 0,10
3	Euri-uren biltzailea eta erregistro-putzua desbideratzea	1	2.397,33	2397,33				2.397,33	2.852,82	2.763,24	3.343,51	% 0,12
4	Bengolarra eraikineko klimatizazio-kaxa	1	4.029,19	4029,19				4.029,19	4.794,74	4.644,17	5.619,44	% 0,19
5	Txapa tolestuko baranda harreran	16,70	505,57	8443,019	Barand.9 00m eta erradapi a 14,00m	Barand.81,4 1e eta erradapia 20,62m	1.021,37	7.421,65	8.831,76	8.554,42	10.350,85	% 0,36
6	Taulako eta xaflazko baranda etxebizitzan	9,40	489,24	4598,856	7,00	71,55	500,85	4.098,01	4.876,63	4.723,49	5.715,42	% 0,20
7	4 aurpegiko haritzeko maila eta etxebizitzako tranpangaina	23,10	417,58	9646,098	21,60	41,67	900,07	8.746,03	10.407,77	10.080,94	12.197,93	% 0,42
8	Estalkira iristeko sabai-leiho + eskailera ezkutagarria	1	3.344,10	3344,1				3.344,10	3.979,48	3.854,51	4.663,96	% 0,16
9	Etzeko ur beroaren produkzio gehigarriak	1	7.784,74	7784,74				7.784,74	9.263,84	8.972,93	10.857,24	% 0,37
10	Erabilera anitzeko 2. aretoko leihoen oszilazio-irekiera	14	174,67	2445,38				2.445,38	2.910,00	2.818,62	3.410,53	% 0,12
11	Aldageletako dutxen pareta iragazgaiztea	63	49,64	3127,32				3.127,32	3.721,51	3.604,64	4.361,62	% 0,15
12	Gimnasioko makinatarako datuak hartzea eta RAK	1	4.420,78	4420,78				4.420,78	5.260,73	5.095,53	6.165,59	% 0,21
13	Sabai akustiko aizuneko erregistroak	13	193,34	2513,42				2.513,42	2.990,97	2.897,04	3.505,42	% 0,12
14	Bainugela-aldagela irisgarriko altzariak	1	1.810,15	1810,15				1.810,15	2.154,08	2.086,43	2.524,59	% 0,09
	Guztira			64.726,24			2.974,83	61.751,71	73.484,53	71.176,90	86.124,04	% 2,97

2024ko uztailaren 18an, obrako zuzendariak proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateei buruzko txostena bidali zuen, plano atxikiekin, prezioak merkatuko prezio orokorretan oinarrituta ezarriz. Kontratistaren adostasuna gehitu zaio.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, aurrerantzean SPKlk, 242.4. artikuluan zehazten du ez duela aldaketarik egiteko beharrik:

II. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako prozeduren bidez kontraesanek finkatutakoak, baldin eta:

- Prezio berri horiek kontratuaren prezio orokorraren igoerarik ez badakarte.
- Obra-unitateetan hasierako aurrekontua guztira ehuneko 3 gainditu gabe eraginik ez badute.

Kasu honetan, obra-unitateak aldatzea prezioa igotzea dakarranez (kasu honetan 86.124,04€ euro), obra-kontratuen aldaketatzat joko da, beraz, SPKlren 242. eta 205. artikuluetan aurreikusita dagoenari jarraikiz, aldaketa-prozeduraren bidez izapidetu beharko da.

Honako hau arautzen du SPKlren 242.2. artikulua:

*Baldin eta, obra-kontratuaren aldaketak direla-eta, proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira edo horien ezaugarriak proiektuan ezarritakoak ez bezalakoak badira, eta beste lizitazio bat egin beharrik ez badago, **Administrazioak finkatuko ditu aplikatu beharreko prezioak, kontratistari gutxienez hiru egun baliodunetz entzun ondoren. Kontratistak finkatu diren prezioak onartzen ez dituzenean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontratatu ahalko ditu aldaketok, finkatutako prezio horietan, edo zuzenean egikaritu ahalko ditu, edo kontratua suntsiarazi ahalko du, lege honen 211. artikuluari jarraituz.***

Era berean, SPKlren 205. artikulua administrazio-klausula partikularren agirian aurrekusi gabeko aldaketak zehazten ditu: prestazio gehigarriak, ustekabeko inguruabarrak eta funtsezkoak ez diren aldaketak. Honela dio artikulua:

*"1. **Administrazio-klausula partikularren agirian aurrekusi gabeko aldaketak, edo aurrekusi gabekoak izanik ere aurreko artikuluan ezarritakoari egokitzen ez zaizkionak, honako***





baldintza hauek betetzen dituztenean egin ahalko dira soilik:

a) *Justifikazioa izatea artikulu honen bigarren apartatuan zerrendatzen diren **kasuetako** batean.*

b) *Mugatuta egotea bera beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko **zorrozki ezinbestekoak diren aldaketak sartzera.***

2. *Aurreikusi gabeko aldaketa bat justifika lezaketen kasuak, baldin eta artikulu honen lehen apartatuan jasotako baldintza guztiak betetzen badira, honako hauek dira:*

a) **Beharrezko gertatu denean hasiera batean kontratatutakoei obra, hornidura edo zerbitzu gehigarriak gehitzea, betiere honako bi baldintza hauek beteta:**

1.a *Kontratastaz aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik; esate baterako, kontratazio-organoa behartuta egotea hasieran kontratatutakoei dituzten ezaugarri teknikoez bestelakoak dituzten obra, zerbitzu edo hornidura batzuk eskuratzera, eta diferentzia horiek erabileran edo mantentzean neurritz kanpoko bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak sortzea; eta, halaber, kontratastaz aldatzeak kontratazio-organoari eragozpen handiak edo kostuen igoera nabarmena ekartzea.*

Inolaz ere ez da eragozpen handizat hartuko kontratastaz aldatzeko beste lizitazio bat egin behar izatea.

2.a *Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gaintitzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulu honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50, BEZik gabe.*

b) **Lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik etorri denean indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra; betiere, honako baldintza hauek bete beharko dira:**

1.a *Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezingo zituen inguruabar batzuetatik etortzea aldaketaren beharra.*

2.a *Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez aldatzea.*

3. a *Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gaintitzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulu honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.*

c) **Aldaketak funtsezkoak ez izatea.** *Kasu horretan, berariaz justifikatu beharko da haien beharra, adieraziz zer arrazoi dauden prestazio horiek hasierako kontratuan ez sartzeko.*

Kontratuaren aldaketak funtsezkotzat jotzeko, haien emaitzak hasiera batean egindako kontratuaz bestelakoa den kontratu bat izan behar du benetan. Nolanahi ere, aldaketak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk betetzen dituztenean joko dira funtsezkotzat:

1.a *Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko, hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onesteko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko.*

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da kontratatari beste sailkapen bat eskatzea –eta ez jatorrizko lizitazio-prozeduran eskatu zizaiona– hala eskatzen duelako jatorrizko proiektutik edo baldintza-agiritik ateratzen diren obrei edo zerbitzuei egin nahi den aldaketa gehitzeak.

2.a *Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratistaren mesedetan.*

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da egin nahi den aldaketaren ondorioz obra-unitate berriak sartzeta eta horien zenbatekoa kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 50etik gorakoa izatea.

3.a *Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua.*





Nolanahi ere, honako hauek betetzen direnean iritziko zaio aurreko paragrafoan aurreikusitako kasua gertatzen dela:

(i) Aldaketaren balioak, isolaturik nahiz osotara, hasierako prezioaren ehuneko 15etik gora aldaraztea kontratuaren zenbatekoa, BEZik gabe, obra-kontratuen kasuan; edo ehuneko 10etik gora, BEZik gabe, gainerako kontratuen kasuan; edo, bestela, 20. artikulutik 23. artikulura aipatutako atalasetatik kontratu mota dela-eta aplikatzekoa dena gainditzea.

(ii) Aldatu behar diren obrak, zerbitzuak edo hornidurak gaur egungo zein etorkizuneko beste kontratu baten eremuan egotea, eta, betiere, kontratazio-espeditentaren izapidetzea hasita egotea”.

Ondoren, sartutako aldaketei dagokionez, guztiak aurreikusi ezin den kontratu-aldaketa gisa izapidetzeko SPKLn ezarritako baldintzak betetzen dituzten aztertu da:

Obra-unitateak	Ezinbestekoak	SPKLren 205.2 artikuluko kasuak
SUAREN KONTRAKO BEIRA LEHENENGO SOLAIRUKO TERRAZA-SOLARIUMERA SARTZEKO ATEAN	1. solairuko terraza-solariumera sartzeko atea suaren kontrako modura aurreikusita dago proiektuan, EI-60 sailkapenarekin. Hala ere, ate horren beira estandar modura proiektatuta dago. Sartzeko atea suarekiko guztiz erresistentea dela bermatzeko, funtsezkoa da beira ere sutearen aurkakoa izatea.	Obra behar da proiektuaren aurrekontuan ez delako partida ekonomikorik aurreikusi. Teknikoki komeni da kontratistak jarduera hori egitea atearen instalazioarekin batera.
IZUAREN KONTRAKO ALTZAIRU HERDOILGAITZEKO 4 BARRA LARRIALDIKO IRTEERETAN	Proiektuan izuaren kontrako barra bakarra zegoen, gimnasiotik terraza-solariumera irteteko larrialdiko atean. Hala ere, larrialdiko beste 4 irteeretan detektatu da izuaren aurkako barrak jarri behar direla; izan ere, aurreikusi da larrialdietan aglomerazioak egon daitezkeela, eta desgaitasuna duten pertsonak errazago ebakutzeko behar dira barrak. Altzairu herdoilgaitzekoak izatea proposatu da, gehiago irauteko.	Obran aldaketa egin behar da, desgaitasuna duten pertsonak errazago ateratzen direla bermatzeko, bai eta larrialdi baten ondoriozko izu egoera batean pertsona-taldeak ebakutzeko. Teknikoki komeni da kontratistak lan hori egitea kostuak ez igotzeko.
SEGURTASUN-SOKA IRAUNKORRA UDAL PILOTALEKUAREN ESTALKIAN	Pilotalekuaren estalkian eguzki-panelak instalatzeko egokitzapena egin ondoren, plaka horien mantentze-eta konponketa-lana egingo duten langileen segurtasuna bermatzeko beharrezkoa da.	Erorritako eta aurreikus ezin zitekeen egoera: udal pilotalekuaren estalkiaren egokitzapena Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obra adjudikatu ondoren egin zen. Ez da kontratuaren izaeran aldaketa garrantzitsurik egin.





Obra-unitateak	Ezinbestekoak	SPKLren 205.2 artikuluko kasuak
ARGIZTAPEN PUBLIKOA ETA KANPOKO URBANIZAZIOA	Argiztapen publikoko arazoak konpontzea proposatzen da: - Lurpeko linea berria egitea (kanalizazioa eta kable-sarea barne) eraikineko kaxa elektriko berritik Gorbeia Eskola HLHIko oinezkoen pasabidera arte eta argi-paldo modernoen arte. - Eraikinaren aurrealdean dauden 3 kale-argiak kentzea eta luminaria bat jartzea igerilekuen lorategiaren itxituran, espaloien erdian geratu ez dadin. - Kableatu eta kanalizazio berria udal pilotalekuko kaxa elektrikoraino. - Etorkezuneko argiztapenerako kanalizazioa, Bengolarrako aire-parkeko linea kentzeko. - Argiztapen publikorako kaxa elektriko gehigarri bat jartzea eraikineko kaxan. - Espaloiko zoladura aldatzea kenduko diren kale-argiek, kutxatilik eta oztopo-zutoinek utziko dituzten zuloak konpontzeko. - Bengolarra kalean zanga, hoditeria eta kutxatilik jartzea etorkizuneko argiztapen publikorako.	Obra aldatu behar izan da eremuko argiztapen publikoaren arazoak konpontzeko: lurpeko linea berria, aireko lineak kentzea, elektrizitate-hornidura hobetzea inguruan dauden zerbitzuetarako kaxa elektriko edo konexio berrien bidez eta oinezkoen espaloitik kale-argiak kentzea.
SILOXANO-MARGOA KOMUNIKAZIO-NUKLEOKO FATXADARAKO	Siloxano-margoa komunikazio-zentroko fatxadaren zarpiatuan aplikatzea proposatu da, Bengolarrako eraikinean birgaitutako zatiaren antzeko itxura eta kolorea izan dezan. Margo-mota horrek agente atmosferikoen kontrako erresistentzia eta iragazkortasun handiagoa du	Obra aldaketa egin behar da agente atmosferikoen aurkako erresistentzia handiagoa izateko eta fatxada hobeto mantentzeko. Horrez gain, birgaitutako eraikinak eta handitutako zatiak kolorearen aldetik uniformeagoa izatea nahi da.
ETXEBIZITZAN BIDEO-ATEZAINA INSTALATZEA	Segurtasun-arrazoiengatik eta baimenik gabeko pertsonak ez sartzeko bideo-atezaina instalatzea proposatu da.	Obra aldaketa egin behar da etxebizitzan bizi diren pertsonen segurtasuna hobetzeko.
ALDAGELA ETA GIMNASIOKO ARMAIRUEN SARRAILAK ALDATZEA (99 UNITATE)	Udalak proiektuan aurreikusitako aldagela eta gimnasioko armairuen giltza bidezko sarrailak aldatzeko eskatu du, kodedun eta teklatudun sarrailak jartzeko. Hala, armairuak errazago erabiliko dira eta giltza fisikoak kenduko dira, horiek eragindako arazoak ezabatzeko (galtzea, lapurtzeko kopiak...).	Obra gehiago egin behar dira aldagela eta gimnasioko erabiltzaileek modu errazagoan erabiltzeko eta lapurreta edo giltzak galtzea ekiditeko.
ERAIKIN OSOKO AROTZERIAN ALUMINIOAREN KOLOREA ALDATZEA	Eraikinaren arotzeriaren aluminioaren kolorea aldatu nahi da: proiektuan aurreikusitako gris argiaren ordean xanpaina metalizatua ipini, lixa leun efektuarekin. Hala eraikina Bengolarra parkeko ingurune naturalarekin eta lur eta berde tonuekin integratzeko. Gainera, tonuak eraikinaren fatxadako gainerako materialekin modu beroagoan konbinatuko du.	Obra handitzeko beharra, eraikina udalerriko ingurune natural garrantzitsuarekin hobeto integratzeko, baita eraikin osoko fatxadan erabiltako gainerako materialekin integratzeko ere.
UR HORNIDURA BENGOLARRA PARKEKO UR-HARGUNERAKO	Udalak eskatu du saskibaloi-zelaiaren ondoan dagoen ur-hargunea uztailearen 26an funtzionatzen hastea. Ur-hargune horrek zerbitzua ematen die txosnei Eguzki Jaian zehar, eta ezin da erabili AMVISAK hornidura-hodia tokiz aldatu zuenetik. Kutxatila berria egitea eskatu da, parkeko iturriari eta 2 ur-harguneri zerbitzua ematen dien 3 hodiekin.	Obra handitu behar da bermatzeko txosnek 2024ko Eguzki Jaian zehar (uztailearen 26tik 28ra) ur-hornidura dutela, eta Bengolarra parkeko iturriarako. Jaia laster izango denez, premiaz egin beharreko lana da.

Cód. Validación: 7F6XSTLFJMFAG9993SSRQP2XC
Verificación: <https://zigoitia.euzkadi.euskadi.eus/>
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 27 de 34





Obra-unitateak	Ezinbestekoak	SPKLren 205.2 artikuluko kasuak
ERABILERA ANITZEKO 1. ARETOAN ETA TABERNA-KAFETEGIKO AROTZERIA LERRAGARRIAN 4 XAFLA GEHIGARRI	Erabilera anitzeko aretoan eta taberna-kafetegiko arotzeria lerragarriaren xaflen kopurua areagotzea proposatu da, xaflen pisuari eusten zaiola bermatzeko, fatxadako hutsuneen tamaina dela eta. Erabilera anitzeko aretoan hutsune bakoitzeko 2 xafla ordez 3 jarri eta taberna-kafetegian 1 ordez 2.	Obran hobekuntzak egin behar dira arotzeria-xafleri modu seguruan eusten zaiela bermatzeko, kontuan hartuta fatxadako hutsuneen tamaina eta arotzeriaren irekiera eta itxiera modu seguruan hobetu behar dela, motorizatu behar izan gabe.
ERAIKINERA SARTZEKO KONTROL-SISTEMA GEHIGARRIEN PRESTAZIOAK	Udalak eskatu du ate nagusitik eta sarrerako tornuetatik gailu mugikorren bidez sartzeko (QR kodea), nahiz eta salbuespen modura txartela ere erabili ahal den. Halaber, sarrera eta irteera kontrolatzeko atea elektrifikatzea eskatu da. Gainerako ateeak itxura elektronikoa izango dute, hurbileko teknologiarekin. Gimnasioko atea sartzeko aukera emango du ezarritako gehieneko edukiera gaintzen ez den artean. Irteera berriz libre izango da, terrazasolariumera irteteko larrialdiko irteera baita. Bideo-atezaina jarriko da terrazan urrutitik irekitzeko, erabiltzailearen bat harrapatuta gelditzen den kasuetarako.	Obra hobetu behar da instalazioen sarreran eta irteeran segurtasun handiagoa bermatzeko eta iruzurra ekiditeko, baita erabiltzaileak eraikineria errazago sartzeko ere.
ARGIZTAPENAREN INSTALAZIO DOMOTIKOA	Udalak eskatu du erabilera anitzeko aretoen eta korridoreen argiztapenaren kontrol domotikoa instalatzeko, pizteko eta itzaltzeko ordutegiak programatu ahal izateko, argiztapena urrutitik kontrolatzeko eta energiaren erabilera optimizatzeko.	Obra egin behar da areto eta korridoreen efizientzia energetikoa hobetzeko, funtzionatzeko ordutegiaren programazioa egiteko eta urrutiko kontrola egiteko.
OBREN EREMUTIK IGAROTZEKO IBILBIDEA EGOKITZEA 2024KO EGUZKI JAIRAKO	Udalak eskatu du udalerriko jaiak egiten direnerako pilotalekuaren eta eraikinaren arteko igarobidea egokitzeko lehenbailehen. Hartarako, hustubideak, kanaletak eta kutxatilik babestu beharko dira, pilotalekuaren sarreran ondoan dagoen lurzorua hormigoiarekin egokitzea eta obraren segurtasun-itxurak atzera eraman.	Eratortirako eta aurreikusitako gabeko beharra; izan ere, hasieran aurreikusitako eraikina birgaitzeko eta handitzeko obrak egikaritze-epea luzatu da hainbat arrazoiengatik.
KOMUNIKAZIO-NUKLEOKO LEIHOEN AHOKADUREN ERREMATEAK	Komunikazio-nukleoko leihoen ahokadurak konpositeko azpadura batekin errematatzeko proposatzen da, aluminiozko akaberekin leiho-zango eta ateburuetan.	Obra handitu behar da komunikazio-nukleoko leihoetan akabera hobetzeko.

Kontratuaren aldaketaren ondorioz aurrekontuan lehen aldaketa % 2,30ekoa izan zen, bigarrena % 6,47koa, hirugarrena % 7,17koa, laugarrena % 2,97koa eta bosgarrena % 7,43koa. Guztira % 26,34ko igoera da, eta, beraz, ez da % 50eko legezko mugara iristen.

2024ko uztailaren 18an Udal-arkitektoak prezio berriak onestearen aldeko txostena bidali zuen.

2024ko maiatzaren 18an Udaleko behin-behineko kontu-hartzaileak kontratuaren aldaketa izapidetzearen aldeko txostena egin zuen, indarrean dagoen aurrekontuko 342.622.000 aurrekontu-aplikazioan kreditu egoki eta nahikoa dagoelako. Aldaketa hori 2024ko maiatzaren 20an onetsitako 2/2024 osoko bilkuraren kreditu gehigarriko espedientearen bidez egin zen.

Horrekin batera aurkeztutako dokumentua aztertu da, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat, eta aurretik adierazitako aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak ikusita, udalbatzak gehiengoz honako **ERABAKI** hau hartu du:

LEHENENGOA.- Onestea Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitu eta handitzeko





obra-kontratuaren aldaketaren espedientea. Obra Europar Batasuna-Next Generation EU programaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak lagundu du diruz. Hala, ondoren zehazten diren obren prezio berriak onesten dira:

Table with columns: Aumento plazo días laborables, Descripción, Partida con precio nuevo, Partida con precio contratado, Partida compensada, and Modificado Proyecto. It lists various construction items and their costs across different months.

BIGARRENA.- Aldaketa behar duen kontratuaren prezioaren 215.797,89€ euroko gehikuntza onetsi eta agintzea. Onetsitako prezio kontraesankorrek proiektuan sartuta geratu dira, egindako obraren egiaztagiriak igortzeko.

HIRUGARRENA.- Esku-hartzaitza eta Diruzaintzari ebazpenaren berri ematea, dagozkion kontabilitate-oharrak egin ditzan.

LAUGARRENA.- Egikartzeko epea luzatzea 2024ko irailaren 15era arte. Kontratistak plangintza eta berrantolaketari buruzko agiria eman beharko du obra-unitate berrien egikartzeari buruz, dagoeneko aurreikusitakoak ere aintzat hartuta.

BOSGARRENA.- Kontratuaren adjudikaziodun diren UTE INDENORT PV, SL-PROVISER IBÉRICA SLU (UE ZIGOITIA) enpresei ebazpenaren berri ematea, dagozkion errekursoak adierazita.

SEIGARRENA.- Obra-zuzendaritzari eta obra egiteaz arduratzen den zuzendaritzari erabakiaren berri ematea.

440/2024 espedientea. EDUARDO LORZA GARCÍA zinegotziak karguari uzteko eskaera onesteko erabaki-proposamena

Aldekoa

Bozketa-mota: ohikoa / aho batez





Alkate jaunak hitza eman dio EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) udal taldeko EDUARDO LORZA GARCÍA zinegotziari. 2024ko uztailaren 15eko Informazio Batzordeko bilkuran adierazi zuen moduan, 20 urte baino gehiagoz zinegotzi izan ondoren, karguari uko egingo dio beste pertsona batzuek lekukoa hartzeko.

Bozkatu ondoren alkate jaunak Zigoitia eta herritarrengatik egin duen lana eskertu eta aitortu dio.

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) udal-taldeko EDUARDO LORZA GARCÍA zinegotzi jaunak 2024ko uztailaren 17an aurkeztutako idatzia ikusi da, non Udal honetako zinegotzi izateari uko egiten dion bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- EDUARDO LORZA GARCÍA jaunak EUSKAL HERRIA BILDU (EH-BILDU) udal-taldearen barruan Zigoitiko Udaleko zinegotzi modura duen karguari uko egitea.

BIGARRENA.- Adierazitako uko egitearen ondorioz Udalbatzako zinegotziaren kargua hutsik gelditu dela adieraztea.

HIRUGARRENA.- Hauteskunde-batzorde zentralari eskatzea EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) hautagai-zerrendako hurrengo pertsonaren aldeko dagokion egiaztatutuna egiteko, hau da, MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA andrearen aldekoa. Hori guztia adierazitako hautagai-zerrendarekin bat.

LAUGARRENA.- MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA andreari modu fede-emailean jakinaraztea hauteskunde-batzorde zentralak bidalitako egiaztatutuna, Toki Araubidean ezarritako ondoretarako, egiaztatutuna hartzen duenean Udalbatzak egiten duen lehen bilkuran kargua hartzeko.

B) KONTROL-JARDUERA

293tik 337ra bitarteko dekretuen kontu ematea

2024-0293 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 1. poligonoko 603. partzelan pabiloi industrialak birgaitzeko obrak egikaritzeko proiektua onesteko] (3RZ3AAJPHE44GENH2X56S2PM6)

2024-0294 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, eskuduntzak eskuordetzea ezkontza zibila egiteko] (4EC3D37R2T5FSP5TDP5RMSQSA)

2024-0295 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko dantza zirkuituan dantza-mUanaldiak egiteko zerbitzuaren kontratu txikia adjudikatze] (A2DJ3WZPQ3A3HE69R22H5WKPN)

2024-0296 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako (LESPEA) lurzoru industrialaren ur hornidurarako eta Gorbeia merkataritza-parkearen eta SAUI-3ren saneamendurako txostenak idazteko eta aholkularitza emateko kontratu txikia adjudikatze] (ALW6K3L3AST3X2KCT5QSQ4RC3)

2024-0297 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua] (5YLLMRF655FQZ62TDNFHQXCFY)

2024-0298 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra eraikina birgaitzeko obraren 25. egiaztatutuna onesteko] (9XLTY6JW9KRCXJA2A5G55366X)

2024-0299 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako saneamendu-sarea hobetzeko





obraren 2. egiaztagiria onesteko] (6QAD427DRQ5D7L4SAACCPNK6)

2024-0300 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko animalientzako osasun-planaren kudeaketa eta jarraipena egiteko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzeko] (6HPS5AD9DFLYE5R4YLLWFJC77)

2024-0301 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, HAPOn idazketa-kontratuaren behin betiko bermea itzultzea onesteko] (A6D3JXQ9KXW394X6WQMND59Q)

2024-0302 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, zerbitzari-aretoaren UPSren bateriak ordezkatzeko kontratu txikia adjudikatzeko] (3SFGF9ZRE2Q6RXRTM66RYWE9X)

2024-0303 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ZIGOITIBAI TRANTSIZIO JUSTUAREN ALDE ELKARTEA elkartearen udal erregistroan alta emateko] (7D24H2YJQW2ELD3T43HQ7S4SD)

2024-0304 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/15 kontabilitateko zerrendako ordainketak onesteko] (9NCESGM23ZZ2RF5EW9MCJP2LT)

2024-0305 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren zati proportzionala itzultzea onesteko, behin betiko bajarengatik] (4SC6YGCL7GMT2YT9WAH4NE3WA)

2023-0306 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Muruan ontzien estaldurak jartzeko obra txikiko lizentzia emateko] (6752ZMEEHMS5DGXDHQ7KM25F)

2024-0307 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko bilketa-eroldan TMIZren likidazioa baliogabetzeko] (AP7RZTWTWCMJT293YK2SFF247)

2024-0308 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zuiako udal-igerilekuetarako garraiorako zerbitzu-kontratuak adjudikatzeko] (57MPTAKSCYCT7Z6SK2F6W4AAZ)

2024-0309 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, bi bozgorailu autoanplifikagailu eta osagarriak hornitzeko kontratu txikia adjudikatzeko] (4J7PQY4LD3FTEA29S39MM274A)

2024-0310 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 1era arteko hiri-ondasun higiezinaren gaineko zergen likidazioa baliogabetzeko eta katastroko titularren likidazioak onesteko] (7LHXP6HWJDGRX5WYR7SR9L6JT)

2024-0311 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko hiri-ondasun higiezinaren zergen zerga-kuota epetan banatzeko] (9R5XECWJMX2ZTSZ4DLKNWAWD)

2024-0312 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, eraikuntza, instalazio eta obren zerga atzeratzea eta bederatzi epetan banatzea onartzeko] (7X7AXFP9XZQQZP367N3EF35HQ)

2024-0313 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, zentro soziokulturalean segurtasun-sistema bigarren mailara egokitzeko zerbitzuaren kontratu txikia adjudikatzeko] (ACK54TS3YZK544NKSSCRAN457)

2024-0314 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, bizileku iraunkorreko baimena ez duten Batasunetik kanpoko atzeritarrei herritarren eroldan iraungitzeagatik bajaran ematea] (5P4SQ2Y293MNQXRRRA6MXT7C4W)

2024-0315 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikaoko 6. poligonoko 1321. partzelan hautsitako hirigintzako legeria ez berrezartzeagatik zazpigarren hertsapen-isuna ezartzeko] (3K4T5T77W5RXG6SGG2CZAT9J6)

2024-0316 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, TMIZen salbuespena ukatzeko] (4JWN46GJEHF3TQDSHE6DT69ZL)

2024-0317 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko Eguzki Jaiaren eraso sexistak prebenitzeko puntu morean psikologo eta sexologo zerbitzuaren kontratu txikia adjudikatzeko] (7ZZ7THDKXHNLKNF6GWLWCPXGK)

2024-0318 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 5. poligonoko 85. partzela errentan emateko aurkeztutako eskaintzak sailkatzeko] (49JDGAHW7ZJXL7ZAQKC4FM73K)

2024-0319 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Ibilgailuan Tratatzeko Zentro Baimendura





- utzitako ibilgailu bat eramateko prozedura hasteko] (9XTRDWKTP34L3T2XZXLMG4R5E)
2024-0320 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua] (AY5LMR3LJTFQZYKTDNFH63C7Y)
- 2024-0321 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, utzitako txakurrak harrapatzeko eta gordetzeko gastuen ondorioena] (3WEE4XA25GPMLWLHPAKXHX4MG)
- 2024-0322 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 4/2024 kreditu gehigarria onesteko] (6726LRDK6NK4769MYA7N6E7PR)
- 2024-0323 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, lanpostuen zerrenda egiteko laguntza teknikorako kontratu txikia adjudikatzeko] (3LH3YYAYMPYYPKS243RJF3DAE)
- 2024-0324 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, musika-eskola birgaitzeko obren zuzendaritza fakultati-boko zerbitzuen kontratuaren lizitazioa onesteko] (9SK52PRACA5T247SZPENZ9XTE)
- 2024-0325 DEKREUTA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024 urtarrila-maiatza bitartean yoga ikastaroko likidazioa balio gabetzeko] (77PAYE3F3SPEDNKYZX7ZKCMNF)
- 2024-0326 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko ekaineko aparteko soldaten eta soldaten ordainketak onesteko] (3PKPT5P6MQ3WZNH6AAKT2F4AR)
- 2024-0327 DEKREUTA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 5. poligonoko 85. landa-partzelaren errentamendu-kontratua adjudikatzeko] (6HC4HPPLMC9LGG3YJGFM4LP9M)
- 2024-0328 DEKRETUA [Ebazpena, Zizkiñora doan baso-pistan zabalgunea hobetzeko eta hodia eraikitze obra txikiko kontratua adjudikatzeko] (7DCY4Y9WXW2R92DPQTF65JAQC)
- 2024-0329 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, LUDOLANDi zentro soziokulturalaren kudeaketa-kontratuaren behin betiko bermea itzultzea onesteko] (KAHDDQT67LKK22CWEPQADRWR)
- 2024-0330 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 5. poligonoko 139. partzelaren errentamendu-lizitaziora aurkeztutako eskaintzak sailkatzeko] (9FTJZXYNX76P2E6DDE6S5DKPN)
- 2024-0331 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 5. poligonoko 139. partzelaren errentamendu-kontratua adjudikatzeko] (59Z6KAQHZ5DYAKQ93PCKTY9WA)
- 2024-0332 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, aurkeztutako eskaintzak sailkatzeko eta eskaintza onena duen lizitazileari errekerimendua egiteko] (9ZXLTP463E3P296ZKJ9H77FR)
- 2024-0333 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2025 baso-urterako egur-sorten eskaerak onetsi eta ezesteko] (9X47Y2QL5F3MZMX6NMGPEH3DS)
- 2024-0334 DEKRETUA [Ebazpena, udal-liburutegirako bibliografia-funtsak hornitzeko kontratu txikia adjudikatzeko] (AYEC635WG2ZN7QGD4W3CN2PPQ)
- 2024-0335 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udako kultur jardueren programari dagokion gastua onesteko] (5LYLDPJRJRJGKLEA4W4H2KJMY)
- 2024-0336 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, uztailaren 26, 27 eta 28an egingo den 2024 Eguzki Jaiari dagokion gastua onesteko] (E7SH735ZS47AQYY2FQ9Q46MJJ)
- 2024-0337 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zigoitiko sakabanatuen 4. poligonoko 274. partzelaren kostu bidezko besterentzea adjudikatzeko] (439TSGAN33AWY63QJJKQPZW46)

Alkatetzaren txostenak

2 PEOI KONTRATATZEA

Alkate jaunak jakinarazi du 3 hilabetez kontratatzeko 2 peoi hautatzeko akta prestatzen ari direla.





Kontratazioa 2024ko uztailaren 29an hasiko da.

“LOS MUERTIMER” FILMAREN FILMAKETA GORBEIAKO HARROBIETARA DOAN ERREPIDEAN

Alkate jaunak jakinarazi du sekuentzia 2024ko abuztuaren 9, 12, 13 eta 14 egunetako bitan filmatuko dela. Lau egun erreserbatu dituzte, eguraldiaren ondorioz filmaketa ezin badute egin, tartea izateko.

DIRULAGUNTZA ESKAERA 2025EKO OBRA TXIKIEN PROGRAMAN

Alkate jaunak jakinarazi du Urisolo kaleko 1A-eskuineko etxabeen dagoen lokala egokitzeko obra egiteko dirulaguntza eskatu dela; izan ere, tokiko produktuen elikagaien denda ezartzeko eskaera egin da. Deialdian baimentzen den gehieneko zenbatekoa eskatu da. Hala ere, obraren kostua handiagoa izango da eta 2025 ekitaldirako udal-aurrekontuan sartzen den aurrekontuaren aplikazioaren kontura finantzatuko da.

SUKALDEA EUSKALDUN BERRIA PLAZAKO UDAL ETXEBIZITZAN

Alkate jaunak jakinarazi du sukalde berria ez dela iraila arte instalatuko, material guztia ez delako abuztuan eskuragarri egongo. Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak eskatu du abuztuan zehar baldintzen agiria aurreratzeko, etxebizitzaren lizitazioa irailean ateratzeko.

ETXABARRI IBIÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRAREN IDATZIA

Alkate jaunak jakinarazi du Administrazio Batzarrak Etxabarri Ibiñako auzokideen kexa-idatzia aurkeztu duela, SAUI-3tik datozen eta lurra garraiatzen duten kamioak herritik igarotzen direlako eta bideak narriatu, zarata eta arriskua dakartelako. Kexari lotuta, jakinarazi du SAUI-3ko obrak amaitzen direnean, sustatzaileak ordaindutako abalarekin, eragindako kalteak konponduko dituztela.

BENGOLARRA PARKEKO HIRI-ALTZARIAK

Lehen alkateorde Carlos Iturrioz Malainak jakinarazi du Bengolarra parkeko instalazioetan hiri-altzari berriak (mahaiak, bankuak, ping-pong mahaiak eta jolasteko-elkartzeko mahaiak) instalatzeko obra-kontratua adjudikatu dela, eta 2023ko obra txikiko programen dirulaguntza izango dutela.

EGUZKI JAIAN TXahal EGOSI ANOAK BANATZEKO BOLUNTARIOAK

Alkate jaunak zinegotziak animatu ditu aurtengo Eguzki Jaian txahal egosi anoak banatzeko boluntario gisa parte hartzera.

C) GALDERAK ETA ESKEAK

Eskaerak eta galderak.

Elisabeth Ochoa de Eribe Román zinegotziak galdetu du noiz egingo diren iraileko informazio batzordea eta osoko bilkura. Alkate jaunak erantzun du irailaren 9 eta 16an ordez, 2024ko irailaren 16 eta 24an izango direla.

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak galdetu du musika-eskolako birgaitze energetikorako obrarako zuintzua egiaztatzeko akta sinatu den. Alkateak erantzun du alde zuzenetik Udalbatzak egikaritze-proiektua onetsi behar duela. Egun udal teknikariak berrikusten ari dira zuzenketak egiteko.

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak galdetu du noiz jaitsiko diren egur-sortak. Nekazaritzaren arloko Iñigo Gracianteparaluceta Lpz. De Ipiña zinegotziak erantzun dio hurrengo astean hasiko direla eta espero dutela abuztuan jaitsi ahal izatea. Datorren urtean lehenago egiten saiatuko dira. Alkate jaunak gehitu du udaberriko eguraldiaz eta OPMko kontserbazio-planaren mugez gain, arazo nagusia dela enpresa bakarrak eman nahi duela zerbitzua, eta ondorioz lanez gainezka dagoela.





Azkenik, Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak galdetu du noren eskumena den Eribe eta Buruaga arteko errepidea konpontzea, zuloak baitaude. Alkate jaunak erantzun du Administrazio Batzarrena dela, eta bi batzarrek laguntzak eskatu dituztela aurtengo udal deialdian. Konponketa-obren aurrekontu totala 140.000 eurokoa da; izan ere, lurzoruak gainezka egin du. Ondorioz, lehen urratsa da batzarra konponketekin hastea beste administrazio batzuen parte-hartzea bilatzeko.

*Idazkariaren eginbidea:
Akta hau 2024ko irailaren 20ko osoko bilkuran onetsi zen.*

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

